

2015eko Martxoan

K

Oñatiko Udala 248. zkia

KONTZEJUPETIK



BADATOR KORRIKA!

Martxoaren 23an igaroko da Oñatitik goizeko 7ak aldera

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
- Kurtzekuan
- Kasablankan

PREZIO BEREZIAK!!

* zehaz. informaziora

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com



UDAL KOMUNIKABIDEEN SAREA

Oñatiarren berbia

Jarrai gaitzazu!

Oñati Irratia | Kontzejupetik | Boletina

Sare sozialak martxan ditugu dagoeneko. Orain, martxoaren 14tik aurrera boletin elektronikoa bidaltzen hasiko gara. Egin zaitez harpidedun!

Boletina (Egin zaitez harpidedun hemen)
www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak

Oñati Irratia
FM 107.4 edo
www.oñati.eus

Facebook
Berbia Oñati

Twitter
@BerbiaOñati

www.oñati.eus

GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera datu hauek bidali beharko dira: igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Joxe Mari Kortabarria Agirre

Jerardo Elortza

Urte asko bizi ondoren, fan xaku Sarramendiko Joxe Mari be. Ixa gizaldi bateko historiaz oso ondo akordaitzen zan, azkenera arte aparteko memoriak gorde eben-eta: umetako gorabeherak baserrian, Sarramendiko eskolako pasadizo kuriosuak, gerrate zibilleko ibillera latzak, Aurrekomendiko kontu jakingarrizak, Garai fabrikako lan-urte luziak eta beste hainbat gauza kontau oskun. Izan be, sarritan jotzen geben harengana informazioa billa.

Joxe Mari pazientzia haundiz eta umore onez hartzen ginduen beti. Ez eukan inolako eragozpenik berak bizi izandakua eta urtien puruz ikasitakua jenerazioa gaztiaguairi ezagutu eragiteko. Eta hori oso inportantia da belaunaldien artian eten sakonik izan eztegin. Momentu honetan, bihotzez eskerrak emutia tokaitzen xakula uste dugu.

Egia jakiteko eskubidea

Irati Goitia, Oñatiko Euskal Memoria taldearen izenean

Martxoaren 24a Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna da, eta hain zuzen ere, aurtengo ekainean beteko da Nafarroako parajerik ederrenetakoan gertatu zen jazoera lazgarriaren 25. urteurrena. Zehazki, 1990eko ekainaren 25ean Irunberriko arroilan gure herriarentzat ahaztezina den zorigaiztoko gertakizun bat suertatu zen: Susana Arregi

Non zaude?

Bada garaia... herrian bila eta bila, baina, ezin aurkitu. Edo beti zu edo beti ni. Ni zu banaiz belarriak ahotsez betetzen zaizkit. Baina gaur ni ere, ez naiz ni, ni izateko beldurragatik, hain zuzen. Ziurrenik eurak ere ez diren horien hitzengatik. Horregatik nahi zaitut baina ez zaitut aurkitzen.

Ni banaiz, baina, hamaika izan ninteke, besteen hitzen beldurrik izan gabe, besteen hitz horiek aurkitu nahi ditudalako, besteen harrera ona helburu dudalako. Uler dezaten nire gorputzak mila izaera izan ditzakela; izan baititzake.

Horregatik IRAZAN nahi zaitut. IRAZAN nire benetako arima, IRAZAN nire benetako mina, IRAZAN eta zabaldu nire nien benetako grina.

IRAZANGO da. IRAZANGO duzu. IRAZANGO dugu...

IRAZAN

oñatiarra eta Jon Lizarralde ando-aindarra hilda agertu ziren, Guardia Zibilaren ordu askotako setioaren ondoren.

Egun eta leku hartan pasatutakoaren xehetasunak Guardia Zibilak bakarrik dakizki. Garai hartako Barne Ministerioak eman zuen bertsio ofiziala bere buruaz beste egin zutela izan zen, ETAko militanteen artean "ohiko praktika" zela adieraziz. Bertsio hau, agian, Espainian baliogarria izango zen; ez, ordea, Euskal Herrian. Gure herria, zoritxarrez, era honetako bertsio ofizialak entzuten oso ohituta baitago.

Bada, hogeita bost urte igaro dira eta oraindik ez da argitu han jazotakoa. Oraindik asko dira argi-ilunak, eta uste dugu beharrezkoa dela zalantza guztiak uxatzea. Gertaera hura, gure herriko historia hurbilaren parte da eta ezin dugu ahaztu. Hala, beharrezkoa iru-

ditzen zaigu memoria egin eta gure ondorengoei han gertatutakoa jakinaraztea. Gainera, gure herrian normalizazio politikoaren eztabaida eta gatazkaren gainditze demokratikoa irekita daudenean, pentsatzen dugu beharrezkoa dela orduko egia osoa jakitea. Bizikidetzarako ezinbesteko urrats bezala ikusten dugu.

Horregatik, eta arestian esan dugu bezala, martxoaren 24a Egia Jakiteko Eskubidearen Nazioarteko Eguna delako, Oñatiko Euskal Memoria taldeko kideok mozio bat sartu dugu hil honetako osoko bilkuran. Udalbatzako kideei honako eskaria egingo diegu: Irunberri gertatutakoa erabat argitzeko, eska diezaietela beharrezkoa den informazio guztia Guardia Zibilari nahiz Espainiako Gobernuaren Ordezkarari.



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duten bikote guztien artean, Kanariar Uharteetara joateko bi bidai * zozketatuko ditugu.

* pertsona bakoitza

Informatu zaitez!!

www.etxeandl.com




Espetxe politika kriminalari STOP! Euskal presoak etxera

Jose Mari Zugasti - Oñatiko Sortu

2014ko abenduan, Audientzia Nazionaleko lehen aretoko epaileak Alberto Plazaola oñatiarraren askatasuna onartu zuen. Hain zuzen ere, lehen aretoko epailearen iritzia arabera, Frantziar estatuan beteriko zigorrak kontatu beharraren aldeko hautua egin zuen. Estatuko fiskalak orde, erabakiari helegitea ipini zion eta beraz Auzitegi Gorenak erabaki beharko du Europatik datorren legedia espainiar estatuak bete behar duen ala ez.

Martxoaren 10ean elkartuko dira Auzitegi Gorenako bost epaileak eta Alberto Plazaolaren auzian erabakia hartu beharko dute eta espetxera itzuli beharraren mamua erabakietako bat izan daiteke. PPren gobernuaren presoak sortu du egoera hau. Lehentasunezko helburu du salbu-espenezko neurrietan oinarritzen den espetxe politikari eustea. Izan ere, espetxe politika da PPren tresna nagusia Euskal Herriak bakearen bidean aurrera egin ez dezan. Honen adierazle da ETak borroka armatua amaitutzat jo zuenetik hiru urte baino gehiago igaro direnean, espetxeetako egoerak okerrera baino egin ez izana: zigorrak luzatzea de faktuzko biziarteko zigorra ezarri, sakabanaketa, isolamendua, larriki gaixo diren pertsonak preso mantenduz, jipoituz...

Horrela bada, PPren espetxe politika kriminalarekin amaitzeko indar eta bide guztiak aktibatu beharko ditugu: bide judizialek, aktibazio eta mobilizazio sozialak biderkatuz, babes politiko eta konpromiso instituzionala indartuz...

Konponbidean urratsak eman behar ditugu. **Mendekuan oinarritutako espetxe politika eta erabaki politikoen aurrean erantzun beharrean gaude: beraz MARTXOAK 10ean OÑATIN ANTOLATUKO DEN MOBILIZAZIORA deitu nahi dugu oñatiko jendartea.**

Nori berea

Aurreko hilean, aldizkari Añonetako portadan agertzen zen argazki ederraren egilea nor den ez genuen adierazi. Akats hori zuzentze aldera, berriro jartzen dugu "Arantzazu erreka Iritegin" argazkia eta oraingoan bai, egilea nor den: J.R. Txintxurreta.

Era berean, Natur Eskolakoekiko bere prestutasuna eta borondatea eskertu nahi dugu, bereak baitira "Ingurumen mehatxatua; gure bisoia galzorian" erakusketako formatu handiko argazki bikainak eta natureskola.eu web-orriko beste hainbat irudi ere. Doakio lerro hauetatik gure errekonozimendua eta esker ona "Txintxu"ri.



Natur Eskolako kideak eta Kontzejupetik

OHAR ETA DEIALDIAK

► Zuberoako Maskaradetara Euskaltegiaren eskutik

Zuberoako Maskarada bertatik bertara ikusteko txangoa antolatu du Udala Euskaltegiak. Zehazki, martxoaren 14an, larunbata, egingo dute irteera. Maule-Lextarrera (Zuberoako hiriburua). Goizeko 8etan irtengo da autobusa Oñatitik, eta gaueko 10ak aldera iritsiko da Oñatira. Prezioa, 12€ (ikasle eta langabetuak 8€). Txartelak salgai martxoaren 9ra arte, Txokolateixan eta Euskaltegian.

► MALI-ELKARTASUNA kanpaina abian da Oñatin



Mali-Elkartasuna elkarteak eta parrokiako Misio Taldeak elkartasun kanpaina bat jarri dute abian, Maliko (Afrika) Saint Paul ikastetxeko haurrei laguntzeko. 600 bat ikasle ditu eskola honek, eta horietako asko barnetegian bizi dira, beraien etxeetatik urruti. Haur

horientzako janaria (makarroiak, espagetiak...) eta eskolarako materiala (koadernoak, boligrafoak...) batzea da kanpainaren helburua. Martxoaren 28ra arte batuko da materiala herriko saltokietan eta paper dendetan.

Esker onez

Jose Antonio Urteaga, Parrokiako Misio Taldeko idazkaria

Parrokiako Misio Taldeak eskerrak eman nahi dizkie oñatiarrei, otsailaren 17ko txokolatadak izan zuen harrera bikainagatik. Prestatutako 60

litroak agortu ziren, eta horri esker batutako diruarekin urrats berri bat emango dute Haitin eskola bat eraikitzeko proiektuan.

Eskerrak baita ere, txokolatadaren antolakuntzan lagunduduten guztiei: Oñatiko Udala, Pago Uso elkarte eta Azurmendi anderea, bereziki.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 8
Tel. 943 78 02 21

BUXALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIKIN ENPATATUTAKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Lanbidea 200, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Eskerrak baina ere, txokolatadaren antolakuntzan lagunduduten guztiei: Oñatiko Udala, Pago Uso elkarte eta Azurmendi anderea, bereziki.

OÑATIKO EUSKERIA

Orain arteko artikulutxu gehixenetan maitte dittuten literaturako idazlien testu batzuren hausnarketia egin izan dot. Gaurko zutabetxo honetan izenburuko liburu ederrari buruz "lorak botatia eta beraren mamiña" agerketia da nere asmua. Igazko udaran eskuratu neben.

Liburua zabaldu, aurkibidera jo, ze gai lantzen diran ikusi, lehenengo ataleko sarrera ederreko orrixak irakurri eta plan bat burutu neben: egunero ordubetxeko batian jardutia eta poliki-poliki zortzi gaixak sakonketan fatia eta ikastia. Hillabete batzuk pasau dira eta hemen neure baloraziñua eta inpresiñua doiatzue.

1)- **Opari ezin hobia** jaso dogu herritarrok. Ezta nahikua erostia, behin irakurtia, apalian jartia, geldi izteia eta kitto. **"Gehien maitte dittuten ontzixak, hamaika aldiz ebalittakuak, maillaatuak eta esku askok hartutakuak dira"** dixo Bertolt Brecht poetak. Ontzixaren zentzua eta esanguria liburu honi be badagokixo.

2)- **Zazpi atal edo kapituluak** oso betiak dira. Horreittako bik, hau da, Sintaxixak eta Aditz Sintagmiak badakoi alde teorikua eta batzuetan aspergarri samarra. Baiña teoria hori argiketako ebalten diran esaldi, adibide eta komunikaitteko formak, oñatiar askori egindako alkarrizketetan jasotako bizipenak dira. "Gramatika bizixa", benetan. Hala bai asmau dauela egilliak. Sarreran dixueñez, alkarrizketatuko pertsona helduak eta beste asko **"berbetan maixu-maistrak dira"**, ahoz bikain dakixenak. Bestalde, Aditz-tablak laburketako eta ulerketako kuadruek ondo egitturatuta dagoz. Eskolan lez, ikasi egin bihar, eta ebalixaz barruratu, ahal dan egogixen berba egitteko eta idazteko.



Bittor Madina



3)- **Esaera zahar eta esapidietan** askok oso ahul ikusten dogu geure burua. Holakuak gutxi samar entzun dittugu. Ikasi askoz gutxiago. Erderazkuak ikastera bihurtu gaue. Zazpigarren ataleko 30 orrixetan agerketan diran esaera, esamolde eta onomatopeiak zoragarriak dira. Umetxuari esatekua: **"Ahitxua janda sabela bero, lotxo bat egindda kalera gero"**. Eta beste honeik: **"Esku bakarrak ezin dau txalorik egin"** edota **"Etxeko hautsak, etxian astinddu"**. Eta beste asko. Txikittatik ikasteko aukera izan bageben! Gaur, hemen dittugu liburu eder honetan.

4)- **Hiztegixaren atala**: sekulakoa da. Larogei bat orri ditu alfabetikoki jarritta. Zenbat berba jator eta polit bertan. Danetik dago: entzundakuak, ebalittakuak, pittinka-pittinka ahaztutakuak, orri bakoitza irakurri ahala hitz asko barriz berreskuratutakuak, berben esanguria adibide aproposekin jorratutakuak. Hiztegi bat astuna eta pixutsua ei dala esan izan daue. Neretzat, behintzat, oraingo hau gustokua izan eta izango da aldiro-aldiro irakurterakuan.

5)- **"Eskergaiztokua da esker ona ixiltasunera mugaketan dauena"**. Hau pasau eztedin, lana sendo egin dozuenoi, Roberto Altuna, Kepa Elortza, Koldo Zumalde, Jerardo Elortza eta Oñatiko euskeriaren aberastasuna kanporatu dozuen gizon eta emakume guztioi milla esker, eskerrik asko. Zenbat balixo gutxiagoko omenaldi publikuak egitten diran sarrittan! Dana merezi doze. Bukaketako, proposamentxua: erregaluen artian etxeko norbaitten urtebete-egunian, ikasturtiari akaberia emuterakuan, ezkonketarakuan, herriko kirol txapelketen eta Jaixetako sari-banaketetan, Olentzero edo Errege egunian **Oñatiko Euskaria** liburua sartuko bageu?

SOFOCLES GOGOAN

Libre izatearen paradigma. Galdetuko banu hor kanpoan zer den benetan libre izatea; zein zentzu emango genioke libre izatearen izaera horri? Bizitza, herria, gizartea. Kontzeptu ugari ditugu libre hitzarekin lotzen. Hala ere, ez dakigu hura neurtzen, definitzen, sentitzen.

Munduaren katarsian, oztopoen aurrean beste alde batera begiratu eta nonork aurrean ditugun arazoak konponduko dituela opa dugu. Eta, hor agertzen dira politikoak, estatuak eta hauen nahigabeak eta dena, aurrez zegoen bezala uzten dute. Promesez beteriko mitinetan, koloreztatuak diren pankartetan; guztien ginetik, denok, gauza bera desio izan arren, latza da munduaren pantomima hura deusezte.

Libre izan nahi dugu, pertsonak garen heinean, libre; aldarrikapen askatasuna debekatzen duen munduan, libre; gerrak hasten ditugun lurrean, libre; sentitzen duguna adierazteko gai ez garen tokian, libre.



Amaia Aranzeta



Mundua eszenatoki bat
bestrik ez da; interes
ekonomiko eta politiko-
militarrak narrazio
direla eta gu, obra
horretako pertsonaia
estereotipatuak
besterik ez

Erabat mandatorioa da munduaren azala. Amerikanismo eta *Putinismoak* oinarritzko balore eta ideien arteko borroka nagusitu dute. Mundua eszenatoki bat besterik ez da; interes ekonomiko eta politiko-militarrak narrazio direla eta gu, obra horretako pertsonaia estereotipatuak besterik ez.

Sofocles-en *Antigona* bizi dugu behin eta berriz, nahiz eta, hau ez den mitoa, errealitate baizik. Greziar tragedia guztiek amaiera tragikoa izaten zuten, horregatik, "tragedia" generoa. Eta, gaur eguneko munduan ere, milaka urte pasa diren arren, identifikatuta sentitu gaitezke Antigona eta Creonte-ren arteko tragedia moralaz.

Hala ere, aurreko batean, nire ikasle talde bati galdetu nien bezala, bizitza zer den definitzeko; zerbait lortu bagenezake amankomunean eta, amaiera batetik beste hasiera bat badator, mundua den obra honetan ere, hasiera berriak idatzi genitzakela argi dut.

Tokiko Gobernuari Galdezka



PINUAK ETA BASOGINTZA EREDUA

? Oñati pinudiz inguratuta dago. Subentziorik al dago pinuak landatzeagatik? Pinudiak hain errentagarriak al dira? Gipuzkoako herririk zabalena izanik, zenbat jende bizi da pinugintzatik -mozten, batzen, kamioilari, serrategietan-? Paisai aldetik ze eragin duen guztiok dakigu, merezi al du ekonomikoki? Ze inpaktu dauka Onatiko ekonomian? Beste basogintza bat posible al da, Nafarroa kasu?

▶▶ Oñatiko Udalak “Basogintza Herrijorran” prozesuaren bitartez herri lur publikoetarako landaketa politika definitu zuen, hosto zabaleko espezie autoktonoak lehenetsiz eta pinuaren landaketa baztertuz. Beste gauza bat da lur sail pribatueta eragiteko dugun ahalmena. Pinuaren aurrean hazkunde geldoagoa duten bertako espezieak landatzeak diru laguntza altuagoak izan arren, insignisa aukeratzeko arrazoietakoa bat da etekin ekonomikoa epe laburragoan ematen duela. Denbora luzera begira egiten diren inbertsioak dira baso landaketak eta horien artean epe motzena dutenen artean dago insignis pinua. Oñatiko aktibitate ekonomikoan basogintzak duen inpaktua txikia da, egin berri den azterketa sozioekonomikoaren arabera. Bai, pentsatzen dugu beste eredu bat posible dela eta egindako urrats txikietan sakontzeAa tokatzen zaigu..

ETXEBIZITZEN ALOKAIKUA

? Udalak herriko gazteei etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emango dizkiela irakurri dut. Jakin nahi nuke, alokairuan dauden etxeen erregistroa egiteko asmorik ba ote duen Udalak, edo a ?

▶▶ Alokairua sustatzeko neurrien artean inor erroldaturik ez dagoen etxebizitzetara %100eko erretegia ezarri genien eta bertatik bildutako dirua etxebizitza alokairu politikan inbertitu behar dugu. Diru laguntza programak prestatzen ari gara eta momentuz alokatzeko laguntzak aurrekusi ditugun arren, ez dugu baztertzen alokagai jartzeko beharrezkoak izan daitezkeen neurrietarako ere laguntza lerro bat martxan jartzea.

TOKIKOARI GALDEZKA

Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera



SORALUZE OSTATUAN

GALIZIAR MENUA

MARTXOAN
DURANTE EL MES DE MARZO
OSTIRAL ETA LARUNBAT GAU GUZTIAN
NOCHE DE VIERNES Y SABADO

25 €
(edaria eta katea barne)

RIBEIROAREKIN!!

EGIN EZAZU ZURE ERRESERBA
943 71 61 79 / INFO@soraluzeostatua.es

Gozatu beste probintzia batzuetako gastronomiaz herriatik irten gabe!

oposiziotik



Lourdes Idoiaga - EAJ

GARDENTASUNA KUDEAKETA POLITIKO PUBLIKOAN

Instituzio-politikoaren testuinguruan, erakundeek kudeaketa politiko-administratiboaren baitan korrupzio, prebrikazio eta gardentasun ezari buruz hainbat salaketa izan dira. Horrek jardun politikoa zalantzan jarri eta desitxuratu du, eta arrazoi guztia erekin, herritarren artean konfiantza eza hedatu da. Aitzitik, esan beharra dago politikari guztiak ez direla berdinak eta ez dela erakunde guztietan berdin jokatzeko, nahiz eta, hauteskunde interesak medio, zenbait alderdi eta koalizioak difamazio kanpainak martxan jartzen dituzten.

Argi dago korrupzio eta prebrikazio delituak zigortu egin behar direla, baina hori ez da nahikoa horrelako kasuak ekiditeko neurririk hartzen ez bada, horrela lortuko baita zenbait erakundeetako, bereziki gehiago absolutua duten gobernuetako, kudeaketari dagokion gardentasun ezarekin amaitzea.

Argi dago korrupzio eta prebrikazio delituak zigortu egin behar direla, baina hori ez da nahikoa horrelako kasuak ekiditeko neurririk hartzen ez bada

Gure ustez, horrelako egoerak saihesteko tresnarik oinarritzkoena erakunde publiko guztiek gardentasuna berma dezaten exijitzen duen araudia onartzea da; "kristalezko hormak" eraikiz publikoa izan beharko lukeen informazio guztia erabat garden izan dadin.

Ez ditugu legegintza ekimen desberdinak zehaztuko, baina kargu publikoei Kode Etikoa exijitzen dieten zein Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Estatuko Gardentasun Legeak sustatzen dituzten ekimen guztiak babesten ditugu. Arau multzo honek, "gardentasun aktiboa" martxan jartzera behartuko ditu erakundeak, gobernuak herritarren eskura zein informazio jarri behar duten zehaztuz, eta bestetik, "gardentasun pasiboa" deitzen denak arautu eta bermatuko du herritarrek behar duen informazio eskubidea.

Arau-eremu berriak zehazten dituen exigentzia guztiak zehatz-mehatz betetzea da gure proposamena, galdutako konfiantza eta kudeaketa politikoari dagokion gizarte zilegitasuna berreskuratzeko eta herritarrei zentzu guztietan "lagunkoia" izango den udalerrira eskaintzeko.

gobernutik



Iosu Lizarralde - EH Bildu

ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAINEKO ZERGA

Jendaurrean aurkeztu zenetik, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga eraso guztien jomuga bihurtu zen. Horren arrazoia begi-bistakoa da: oro har aberastasunaren gaineko zergak ez dira izaten aberatsen gustukoak. Horren harira, PNVk esan berri du Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzeko ardura hartzen badu zerga hau kenduko duela. Zergatik? Argudio erabilienetako bat da zergadun handien *ondare ihesa* eragin dezakeela.

PNVren diskurtso hau entzunda pentsa liteke aberats handi horiei Bilduren zerga deitutakoak beren ondasunen erdia konfiskatu nahi diela, edo antzeko zerbait. Bada, adibide gutxi batzuek uste ustel horiek erlatibizatuko dituzte: 3 milioi euroko ondarea (garbia, alegia, zorrak kenduta) duen pertsona batek gehienez 10.000€ ordainduko luke; beraz, haren ondarearen %0,33ko kopuruan ordainduko luke zerga. 5 milioi euro izanez gero, gehienez %0,75ean tributatuko luke eta 37.500€ ordainduko litzuke. Inoiz ez da iristen %leko tributaziora. Kontuan hartuta kapitalaren batez besteko errentagarritasuna %4 eta %5 bitartekoa dela, ez da sinesgarria horrelako pertsonak beste lurralde batera masiboki joateko arrazoi erabakigarri bat denik.

Zerga honek aberatsen diren %1ari eragiten dio eta %100ak jasotzen ditu onurak.

EH Bilduk AFHZ zergarekin jarraitzearen alde egiten du, balorazioa ona delako: zerga egokia da, aberastasunaren gaineko benetako zerga da, eta Gipuzkoako sistema fiskalari izaera ekitatiboagoa eta justuagoa ematen dio. Eta, bildutako dirua %47 hazi da aurreko legealdiko zergan bildutakoaren aldean: 57 milioi euro 39 milioi euroren aldean.

Bestalde, zerga hori kentzeak ekarriko lukeen diru bilketa galera konpentsatzeko beste zerga batzuk ezartzea ekarri beharko luke, baldin eta PNVk iragarri duen bezala, inora ez garamatza trena eta ke askoko errauskailuaren proiektuekin aurrera jarraitu nahi badu.

Garapena deitzen dutena ezin ase, beti jan eta beti gose. Nondik ateratzen gure ustez lehentasunak ez diren proiektu horietarako inbertsioak? Aberats handienei kendutako zerga zama gutxien dutenei kobratuta izan daiteke aukera bat. Bestea, **murritzeta sozialak** aurrera eramatea litzateke, legealdi honetan gizarte zerbitzuetan egin diren aurrerapen guztiak bazterrean utziz. Argitu beharko dute.

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 - OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitateak:**

publi@oinati.net



AUTOBUS ZERBITZU BERRIAK MARTXAN DIRA

SAN PRUDENTZIOKO GELTOKI BERRIA ERE FUNTZIONAMENDUAN SARTU DA

Martxoaren 1ean sartu dira indarrean herri arteko autobus zerbitzu berriak. urte eta erdiz burutu den parte-hartze prozesuari amaiera emanez. Autobus zerbitzuen emakida edo konzesioak berriro behar zituela kontuan hartuz, Foru Aldundiak parte-hartze prozesu zabala jarri zuen abian, autobus zerbitzuak hobetu eta herritarren beharretara egokitutako eskaintza egin asmoz. Urte eta erdiko prozesuan zehar 5.000 ekarpen baino gehiago jaso ditu Aldundiak, eta horiek aintzat hartuz antolatu ditu martxan jarri berri diren zerbitzu berriak.

Aldundiak apustu garrantzitsua egin du autobus zerbitzua hobetzeko, ondorengo datuetan ikusten den moduan. Aurten, Lurraldebuseko autobusek 22 milioi kilometro egingo dituzte (iaz 16 milioi) lurralde osoan, eta 99 gidari gehiago (+ %18) ariko dira lanean. Guztira, 26,4 milioi euro inbertitutako ditu aurten diputazioak, iaz baino %42 gehiago.

Orain arte garraio publikoaren eskaria baxua izan da Debagoiena eskualdean, eta zerbitzu berrien bidez bultzada berezia eman nahi zaio, eskualde barruko loturez gain, hiriburuekiko lotura hobetuz.

GELTOKI BERRIA ELORREGIN

Autobus zerbitzua berritzearekin batera, Elorregi-San Prudentzioko geltoki berria ere jarri da funtzionamenduan. Bertan eratuko dira aurrerantzean norabide bateko nahiz besteko autobusak eta, beraz, bidaiariak ez dute errepedea gurutzatzen ibili beharko. Oraindik ez dute markesina edo aterpea jarri, baina egun gutxi barru jarriko omen dute. Beraz, aurrerantzean aterpean itxoin ahal izango diogu autobusari.



**Oraingoz, bizikletentzatko aparkalekua
jarri dute San prudentzioko geltokian.
Datorren astean markesina berria,
7 metrokoa eta TFT pantaila
jarriko dituzte**

Oraingoz autobus guztiak geratuko dira San Prudentzioko geltoki berrian

Hemendik aurrera geltoki bakarra dago San Prudentzian, norabide bateko nahiz besteko autobusentzat. Kontua da, Oñatitik doazen autobusak zuzen eta erraz sartuko direla geltokian, baina gainerako zerbitzuek maniobra bihurri samarra egin beharko dute bertara sartzeko. Beraz, autobusak San Prudentzioko biribilgunean bueltaka alperrik ibili ez daitezten, Aldundiko arduradunek eskaripeko sistema jarri nahi dute martxan. Hala, laister makina bat jarriko dute San Prudentzioko geltokian, eskaerak egiteko modu errazean. Telefonoz edo internetez ere egin ahal izango da eskaria aldeztu aurretik.

Eskaripeko sistema horrekin probak egiten ari da Aldundia Tolosaldean, eta sistemak behar bezala erantzuten duela ikusten dutenean ezarriko dute San Prudentzioko geltokian. Baina bienbitartean autobus guztiak geratuko dira bertan.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorris: 620 77 66 20



www.lurraldebus.eus

Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatu duen webgune berri honetan, herri arteko autobus zerbitzu berrien gainera informazio guztia aurkituko dugu. Eskualde guztietan dauden zerbitzuak eta ordutegiak ez ezik, bidaiak antolatzeko aukera, tarifak eta LURRALDEBUS edo MUGI txartelei buruzko informazio guztia eskaintzen da bertan.

www.pesa.net atarian ere aurkituko dugu informazio guztia.

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOIAK, LURRAK, LUR FLOKATUAK, ARROAK, PINTURAK, LAKAK...






ORDEZKUTZAILA ETA MANTENTZAILA
HERRAIREK, HERRAIREK HERRAIREK
ORDUTIA: 12:00-14:00 - 16:00-18:00 - 19:00-21:00
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZERBITZU BERRIAK

► BI LINEA ZIRKULAR

Eskoriatza-Arrasate-Bergara-Zumarraga-Legazpi-Oñati-Arrasate-Eskoriatza

Orduerdiko maiztasuna du norabide batean eta bestean. Horri esker, Oñatin **orduerdiko** daukagu autobusa **Arrasate** aldera (06:40 lehen eta 00:05 azkena) edo **Zumarraga** aldera (05:10 lehen eta 23:05 azkena) astegunetan. Orain, gainera, Zumarragako ospitalean ere izango dute geltokia.

► Oñati-Bergara-(Eibar)

Goizeko 06:05ean hasita, orduro zerbitzu zuzena dago Bergarara, eta 10:05etatik aurrera, bi ordutik behin Eibarreraino. San Prudentzian ibilbide luzeko beste linea batzuekin konbinatzeko aukera ematen du.

► Eibar-Bergara-(Oñati)-Arrasate-Gasteiz

Maiztasun handiko linea da hau; orduro 3 zerbitzu. Gehienek AP-1 autobidea hartzen dute Arrasaten. Zerbitzu bat dago orduro Aretxabaleta eta Eskoriatzatik pasatzen dena. Goizeko 06:50ean Oñatitik irtengo da zerbitzu bat. Gainerakoan, San Prudentzian hartu ahal izango ditugu linea honetako autobusak.

► Arrasate-San Prudentzio-Bergara-(Elgoibar)-(Zarautz)-Donostia

San Prudentzian hartu ahal izango dugu zerbitzu hau; lehenengoa 06:10ean. Elgoibarrera eskolara joan behar dutenentzat, 07:50ean iritsiko da San Prudentziotik 07:20ean pasako den autobusa. Donostiarako bidean Zarautzen geratu ahal izango da, bidaiariren batek eskatzen badu. Bueltarakoan, Zarautzen aurrez norbaitek txartela erosi duenean bakarrik geratuko da bertan.

► Arrasate/Oñati-Bergara-Bilbo

Egunean sei joan-etorri azkar, autopistatik. Bi zerbitzu (06:30 eta 13:00) Oñatitik irtengo dira. Besteak San Prudentzian hartu ahal izango ditugu.

► Bergara/Oñati-Arrasate-Durango-Bilbo

Lehen bezala mantentzen da linea hau, bai ibilbidea eta bai ordutegia. Urte guztirako ordutegi bakarra izango du. Goizeko 9:15etako, astegunetan, Oñatitik irtengo da.

► Arrasate-San Prudentzio/Oñati-Loiu

Sei joan-etorri egunean. Goizeko lehen zerbitzua (05:00) Oñatitik irteten da, eta Loitutik irteten den azkena (23:15) ere Oñatiraino dator.

► Arrasate-San Prudentzio-Elgoibar-Deba

Zerbitzu hau **uztailean** eta **abuztuan** bakarrik egongo da, hondartzara joan ahal izateko. Bi ordutik behin egongo da autobusa (08:45 lehen; Debatik azkena 21:45ean).

► Oñati-Arrasate (Gauekoa)

Linea zirkularraren zerbitzua osatuz, larunbat gauetan eta jai egun bezperetan egongo dira lau zerbitzu: 01:00, 02:30; 04:55 eta 05:40.

Pertsona nagusien zaintza zerbitzua indartu egingo du Bidebarrik



Bulegoa zabaldu du Foruen enparantza Sean, zerbitzua koordinatzeko

Urte eta erdi darama Bidebarrik pertsona nagusien zaintzarako zerbitzua eskaintzen. Beharra duten familiei konfiantzazko pertsona bat eskaintzen die zaintza lanak egiteko, eta administrazio lan guztia (kontratua, gizarte segurantzaren alta ematea, nominak...) egiteaz arduratzen da. Orain bultzada bat eman nahi dio Bidebarrik zaintza zerbitzuari, eta horretarako bulegoa zabaldu du Foruen enparantzako Sean. Jon Igartua eta Ibai Urrutiak eman dizkigute azalpenak.



Bidebarriko gerente Jon Igartua eta honen laguntzaile Ibai Urrutia plazan zabaldu duten bulego berrian

Duela urte eta erdi hasi zineten zaintza zerbitzua eskaintzen. Zergatik?

Ikusten genuelako herrian beharra zegoela etxe partikularretan zaintza lanetan diharduten pertsonen egoera erregularizatzeko. Beraz, zerbitzu hori ematen hasi ginen eta, bide batez, langabezia dagoen jendearek etxeko zaintza lanetan lan egiteko aukera ematen.

Konkretuki, zein zerbitzu eskaintzen du Bidebarrik?

Guk, batez ere, bitartekaritza lana egiten dugu; hau da, behar konkretu batzuk dituen familia etortzen da guregana, eta gu saiatzeko gara behar horri erantzuteko pertsona egokiena aurkitzen gure lan-poltsatik.

Gero, familiaren eta langilearen arteko kontratua egiten dugu, gizarte segurantzaren alta ematen diogu, eta hileroko nominak ere gesionatzen ditugu.

Kasu batzuetan, familiak berak aurkitzen du zaintza lana egingo dion pertsona, eta guregana etortzen da lan kontratua formalizatzerako.

Beraz, zuek gestio lana bakarrik fakturatu duzue, ezta?

Bai. Langilea aurkitzea ez dugu kobratzen. Kontratua sinatzen den momentutik aurrera fakturatu dugu guk, 30€ hileko, gestio lan guztiak egitearen truke (altak eta bajak, gizarte segurantzaren alta ematea, nominak...).

 **JON IGARTUA**
Bidebarriko gerentea

Guk bitartekaritza zerbitzua egiten dugu; beharra daukan familiari zaintza lanak egiteko pertsona aurkitzen diogu, eta langile horren kontratua egiten dugu (altak eta bajak, gizarte segurantzak, nominak...)

Horrez gain, zerbitzuan gerta daitezkeen bajak (oporrak, gaixotasunak...) kubritzen saiatzen gara.

Nola edo nondik lortzen duzue zaintza lanak egiteko langileak?

Alde batetik, geure zerrenda edo lan-poltsa daukagu, gero eta jende gehiagok deitzen digulako bere erreferentziak emateko.

Horrez gain, udaleko Gizarte Zerbitzuetan eta Enplegu sailean duten zerrendara ere jotzen dugu, eta beharra egonez gero, baita Lanbidera ere.

Gizartea zahartuz doa, eta gero eta beharrezkoagoak dira era honetako zaintza zerbitzuak, ala?

Hala da, bai. Gure nagusiak etxean eduki nahi izaten ditugu ahalik eta luzaroen, eta horretarako, askotan kanpoko laguntza behar izaten dugu. Guregana jotzen duen jendea, benetako beharra duelako izaten da, eta normalean ordu askoko kontratuak egiten ditugu; 4 ordutik hasi eta interna edo egun osoko-etaraino. Kasu batzuetan, zaharren egoitzan edo Egunekeo Zentroan sartu arteko zubi moduko zerbitzua izaten da gurea.

Orain plazako bulegoa zabaldu behar duzue. Zertarako?

Zaintza zerbitzuari, eta Bidebarrik eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuei (lokal, bulego edo elkarleen garbiketa, catering zerbitzua...) butzada bat eman nahi diegu. Foruen plazako lokala (Txurrukaren ondoan) erreferentziatzko lekua izango da, bezeroak bertara joateko, eta familiekin bilerak egin ahal izateko.

Elkarte gastronomiko, lokal edo bulegoetako **GARBIKETA ZERBITZUA**

Oinarrizko garbiketa zerbitzua eskaintzen dugu administrazioa, enpresak edota partikularrentzat

Bidebarrik dituen aktibitate osagarrietako bat garbiketa zerbitzua da. Aspalditik ari da zerbitzu hau ematen, baina orain arte Udalaren instalazioetara mugatu da: kiroldegia eta Kalegoienako parkinak, Azkoagain, hondakinen bulegoa...

Orain aktibitate hau zabaldu edo indartzeko asmoa du Bidebarrik. "Uste dugu aukera interesgarria dagoela, adibidez, elkarte gastronomikoetan. Eta

horrez gain, garbiketa espezializatuan sartu barik, oinarrizko garbiketa zerbitzua eskainiko dugu modu irekian edozein bezerori: enpresak, administrazio publikoa, partikularrak..."

Garbiketa zerbitzua ere Foruen enparantzako 5 zenbakian zabaldu duten bulegotik (943 71 64 79) koordinatuko dute.

Etkez etxeko catering zerbitzua **SUTONDO**



Etkez etxeko catering zerbitzua da Bidebarrik duen beste aktibitateetako bat. Batez ere adineko pertsonen eta menpekotasunen bat dutenei zuzendutako zerbitzua da. Etxean janaria prestatzen ibili barik, pertsona bakoitzaren nutrizio beharretara egokitutako jakiak eramaten dizkio Bidebarrik etxera, berotu eta jateko gertu. Sutondo enpresa espezializatuak prestatzen ditu jakiak, eta Bidebarrik banaketa egiten du etxez etxe.

Ikasleak edota bakarrik bizi diren pertsonak ere balia daitezke zerbitzu honetaz. Gaur egun 20 etxetara eramaten ditu Sutondoren jakiak Bidebarrik. Informazio gehiago 943716479 telefonon.

25 pertsona ari dira lanean gaur egun Bidebarrin



Bidebarri Enplegu Zentroa 1996an eratu zen, Udala eta Caritasen babesarekin, lana aurkitzeko orduan zailtasun gehien dituzten pertsonen laguntzeko helburuarekin. 'Enplegu Zentro Berezi' eta 'Laneratzeko Enpresa' kalifikazioak ditu. Ildo horretan, minusbaliak dituzten pertsonen edota egoera sozio-ekonomiko zailak dituztenei irtenbide bat ematen ahalegintzen da.

Horretarako, aktibitate ekonomiko ezberdinak garatzen ditu: kafe, freskagarri eta *snack* makinaren *vending* zerbitzua da (240 makina enpresa ezberdinetan); ogi eta gozo-denda Kalegoienan; tailerra (azpi-kontratututako lanak egiten ditu Ulma Polimero eta Nemesio Zubiarentzat).

Horiez gain, zaintza eta garbiketa zerbitzuak, eta beste lan puntual batzuk ere egiten dituzte: banaketak (aldizkariak, esku-orriak...), Udalaren plastikozko baxera edo ontziteria garbitu...

Aktibitate guztien artean 25 pertsona ari dira lanean gaur egun Bidebarrin, batzaz beste %75eko lan-jardunarekin.



Olabarrietako maixuen etxeak berritu ditu Udalak

ERABILERA SOZIALA EMANGO DIE

Olabarrietako elkarte eta auzo-lokalaren gainean dauden bi etxebizitzak berritu ditu Udalak, erabilera soziala emateko helburuarekin.

Garai batean auzo-eskolako maisuen bizileku izandako etxebizitza hauek itxita egon dira azken hamar bat urteetan. Tartean, baimendu gabeko sarrera batzuk ere izan dira, eta nahiko egoera txarrean zeuden.

Duela urtebete hasi ziren berritze lanak. Hauetako batzuk (hondakinak erretiratu, igeltseritza lanak...) udaleko brigadak egin ditu tarteka, eta horrek geldotu egin du erritmoa, baina dagoeneko ia prest daude, ondoko argazkietan ikus daitekeen moduan.

Azpimarratzekoa da, biomasa edo pellet bidezko berokuntza sistema eta zoru erradiatzailea jarri dutela etxea bertzeko.

Danera 138.000 euro inguru inbertitu ditu Udalak berritze lanetan. Esan bezala, erabilera soziala emango die etxebizitza hauei, baina oraindik erabaki gabe dago zein baldintzatan. Epe laburrean finkatuko du Udalak etxe hauen erabilera araudi zehatza.



62m²-ko azalera dut etxe bakoitzak. Sukaldea (9,50m²), komuna, egongela (16,15m²) eta 10,50m² inguruko hiruna logela dauzkate,



1000 EUROKO LAGUNTZA langabetuak kontratatzen dituzten enpresa txikientzat

Udalak 1.000 euroko laguntza emango die herriko langabetuak kontratatzen dituzten 100 langiletik beherako enpresei.

Dirulaguntza jaso ahal izateko baldintzak hauek dira: kontratua egun osokoa izatea eta, gutxienez, 6 hilabetekoa. Kontratua lanaldi partzialekoa bada, dirulaguntza ere proportzionala izango da. Kontratututako langabetua Oñatin erroldatuta egon behar da, gutxienez sei hilabete lehenagotik.

Enpresak ezingo du langile murrizketarik egin kontratuak dirauen bitartean. Ez dira onartuko ordezkapenak edota langileen kontratu luzapenak. Gehikuntza egon behar da langile kopuruan.

1.300€-ko LAGUNTZA EMAKUMEZKO BADA

Laguntza 1.300 euroko izango da honako kasuetan: kontratatzen den pertsona emakumea bada, edota langabezian 12 hilabete baino gehiago badarama. Eta kontratatutako pertsonak familia-kargak baditu (seme-alabak, gurasoak...), karga bakoitzeko %10 gehiago jasoko du, bestelako prestazio edo laguntzarik jasotzen ez badute.

Deialdia GAO-n argitaratu ondoren, azaroaren 15era arteko epea egongo da zabalik eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12-943037700).

Iaz, herriko bost enpresak baliatu zuten programa hau, eta sei langabetu kontratatu zituzten.



BATUAK S.A.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

Titulatu berrientzako bekak emango ditu Udalak, herriko enpresetan proiektuak burutzeko

Ikasketak amaitu dituzten titulatu berriei zuzendutako programa bat jarri du abian Udalak, herriko enpresetan proiektuak egin ditzaten, beka izaerako ordainsari baten truke.

Modu horretan, helburu bikoitza lortu nahi da programa honen bitartez: batetik, herriko gazte titulatu berriei lehen lan esperientzia kualifikatua erraztea; eta, bestetik, herriko enpresei titulatu berrien gaitasun profesionala ezagutzeko aukera ematea.

TITULATU BERRIEN ETA ENPRESEN PROIEKTUEN LAN POLTSAK

Programa hau garatzeko, titulatu berrien poltsa osatuko du Udalak, bertatik aukeratu ahal izateko proiektuak garatuko dituzten pertsonak.

Titulatu berrien poltsan izena emateko baldintza da Oñatin erroldatuta egotea 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenago. Formazioari dagokionez, gradua, masterra, lizentziatura, diplomatura, goi mailako heziketa zikloa, edo honekin lotutako 3. mailako profesionaltasun agiria eduki behar da. Karrera amaierako proiektua egiten ari direnak ere

HERRIKO GAZTE TITULATU BERRIEI LEHEN LAN ESPERIENTZIA KUALIFIKATUA ERRAZTEA DA PROGRAMAREN HELBURUA

onartuko dira. Titulua azken bi urteetan lortutako izan behar da, eta eskatzaileak Lanbiden izena emanda egon beharko du.

Datozen egunetan argitaratuko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta hortik aurrera azaroaren 30era arteko epea egongo da titulatu berrien poltsan izena emateko.

Beste poltsa bat osatuko du Udalak, programa honen bitartez proiekturen bat garatzeko interesa duten herriko enpresekin. Ehun langile baino gutxiago duten enpresak izan beharko dute.

Udalak MU eta Saiolanekin batera egingo du titulatu enpresei aukeraketa, enpresetan landu beharreko proiektuen beharren arabera.

600 EUROKO ORDAINSARIA

Bekak 3 eta 6 hilabete arteko iraupena izango du, eta 600 euroko hileroko ordainsaria jasoko du bekadunak, eguneko sei orduko lan jardunaren truke. Saiolanek tutore bana jarriko dio proiektu bakoitzari, lana zuzendu eta jarraipena egiteko. Udalak 40.000 euroko diru-atala bereiztu du programa hau garatzeko 2015ean.

GUZTION ARDURA DA KALEAK GARBI MANTENTZEA

Azken aldian lurrean agertzen diren hondakinak direla eta, herritarrei arduraz jokatzeko eskatu nahi die Udalak.



OLIOA

- Sukaldeko olioak bakarrik bota.
- Horretarako banatutako poteak bakarrik erabili (beirazko poterik ez).
- Ez sartu plastikozko poltsarik.
- EZ UTZI bidoirik lurrean: taberna, jatetxe eta elkarte gastronomikoek beraien olioak kudeatu behar dute (Garbigunera, Garbigune ibiltaria, kudeatzaile probatuak...)



TRASTE ZAHARRAK

- Aurrez **943711938** zenbakira deitu.
- Txukun utzi (bidea oztopatu gabe).
- Ez utzi: beira, erropak, organikoak, papera-kartoia, ontzi arinak, zaborra...
- **GOGORATU** ez dela etxe, lokal edo garajeen hustutze-garbiketa zerbitzua



BEIRA

- Ez bota plastikozko poltsarik edukiontzi berdera.
- Botila, tarro eta flaskoak hutsik bota.
- Beira edukiontzira botatzeko ordutegia kontuan hartu zaratatagatik



HONDAKINAK

- Banatutako ontzietan atera behar dira hondakinak, bakoitzari dagokion esekitokian zintzilikatuta.

ESKOLAKO BIDEA

PROIEKTU HEZITZAILEA MARTXAN DA

Herriko Ikastetxeak eta Udaleko Hezkuntza zerbitzua mugikortasun jasangarria elkarlanean lantzen dabilten azken urteetan. *Eskolabus* egitasmoaren ondotik, aurten *Eskolako Bidea* proiektua martxan jartzea adostu dute.

HAURREN AUTONOMIA ETA AUTOESTIMUA LANTZEA HELBURU

Eskolako Bidea proiektuaren helburua LHko ikasleek etxetik ikastetxera egiten dituzten joan-etorriak lagunekin oinez, patinetez edo bizikletaz modu autonomo baten eta bide seguru batetik egitea da, haurren autonomia eta autoestimua lantzeko helburuarekin.

Psikologia eta hezkuntza aditu asko bat datoz gurasoek haurrak gehiegi babesteko gero eta joera handiagoa dagoela esaterakoan. Fernando Olabarrieta, Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia irakaslea: "Haurrak hezteko orduan, txuritik beltzera pasatu gara. Lehen autoritatea zen nagusi; orain gehiegizko babesa. Gehiegizko babes horrek, lagundu baino gehiago umeari kalte egiten dio baina, autonomia falta eta autoestimu baxua eraginez".

Umeek duten autonomia maila eskolako joan-etorrietan antzeman daiteke besteak beste. Ibilbide hau jadanik bakarrik edo lagunekin egiteko gaitasuna izan arren gurasoen edo helduen zaintzapean egiten da askotan.

Baina autonomiaz gain ariketa fisikoa eta ohitura osasuntsuak, kutsadura eta ikastetxe aurreko kotxe pilaketa gutxitzea, umeen arteko harremanak edo sozializazioa eta segurtasuna ere landuko dira egitasmo hezitzaile honen bitartez.

ABIAPUNTUKO EGOERA

Ikasleek eskolako bidea nola egiten duten jakiteko galdeketa egin da. Grafikoan ikus daitekeenez, LHko ikasleen %45a oinez doa eskolara, %29 kotxez, %18 patinetez, %6a autobusez eta %2a bizikletaz.

Lehen Hezkuntzako ikasleen artean mugikortasun aktiboa da nagusi beraz. Joan-etorri gehienak, %65a, oinez, patinetez edo bizikletaz egiten dira, baina kotxez egiten diren joan-etorriak ere asko dira, %29.

Abiapuntuko egoera ona dela esan dezakegu beraz, baina zer hobetua ere



Datu deigarria da patinetearen erabilera altua. Euskal Herrian ez dira herri asko Oñatiko erabilera maila dutenak.

badago aldi berean. Datu deigarria da patinetearen erabilera maila altua, Euskal Herrian ez dira herri asko Oñatiko erabilera maila dutenak.

FASE EZBERDINAK

Proiektua otsailetik ekainera bitartean garatuko da, hainbat fasetan:

1.-Bide-segurtasuna. Ikastetxeetara joateko ibilbide nagusien bide-segurtasun azterketa tekniko bat burutuko da. Azterketa tekniko hau aholkularitza enpresako teknikariek egingo dute.


2.-Diagnostiko komunitarioa. Ikastetxe guztietan mugikortasunari buruzko diagnostiko komunitarioa osatuko da, gurasoek, irakasleek eta ikasleek egindako ekarpenekin. Batetik, Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. Mailako ikasleekin eskolako

bidean ikusten dituzten arriskuen gainean lan egingo da. Bestetik, gurasoekin hausnarketa bilerak antolatuko dira, proiektuak seme-alabarendako dakartzan onurak partekatu eta gurasoek ikusten dituzten arriskuen gainean hausnartzeko.

Bide segurtasun azterketa tekniko eta diagnostiko komunitarioa kontrastatu eta diagnostiko osatu bat lortuko da, segurtasun arazoak non kokatzen diren eta hauen konponbide aukerak hauteman, eta proiektu pilotua martxan jartzeko ekintza proposamenak adostuko dira.

3.- Esperientzia pilotuak. Ikastetxe bakoitzean zein esperientzia pilotu burutuko den eztabaidatuko da, aholkularitza lanetan izango diren teknikariek lagunduta. Mota askotako esperientziak izan daitezke: Oinezbusak,

NOLA JOATEN DIRA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK ESKOLARA OÑATIN?



%65 oinez, patinetez
edo bizikletaz joaten dira;
baina kotxez egiten diren
joan-etorriak ere asko
dira, %29

Bizibusak, trafikoa baretzeko edo sentsibilizazio ekimenak... parte-hartzaileekin adostutako esperientziak izango dira beti ere.

4.- Ekintza Plana. Bukatzeko azken balorazioa egingo da eta 2015-2016 ikasturterako ekintzak zehaztuko dira.

Eskolako Bidea proiektuarekin batera, mugikortasun iraunkor eta segururako beste bi ekimen daude martxan. Udaltzaingoa Bide Hezkuntza formazioaren ardura hartu du aurreko lehen aldiz eta ikastetxe inguruetako bizikleta eta patineteen aparkalekuak dauden beharretara egokitzeko proposamena adosten dabilta Udala eta ikastetxeak.

Gaikako zakarrontzi berriak herrigune historikorako

Hainbat herritarren eskaria aintzat hartuz, herriko erdiguneko zenbait lekutan hondakinak gaika biltzeko zakarrontzi berriak jarriko ditu Udalak. Foruen enparantzan eta Kale Barrian bina, eta Atzeko Kalen, Kale Zaharrean eta Ramon Irizar kaleko plazan bana. Gaztainondo egurrez eta Corten altzairuz eginda daude zakarrontziak. Apirilean zehar jarriko dituzte.



San Martin auzoko jolas parkean estalpea jarriko du Udalak

San Martin auzoko bizilagunen eskariari erantzunez, Udalak aterpea jarriko du jolas-parkearen ondoan. Ugarkalden dagoenaren antzekoa. Estalkiak jarlekuak babestuko ditu, eta jolas-parkea aire librean geratuko da, orain arte bezala. Protec S.L. enpresak jarriko du estalkia 11.534 euroko aurrekontuarekin.



DIRULAGUNTZA DEIALDIK

Kultur proiektuak eta sormena sustatzeko dirulaguntza

Udaleko Kultura sailak 2015eko dirulaguntza deialdia egin du. Bi laguntza lerro biltzen ditu deialdiak: batetik, kultur proiektuak eta programak gauzatzeko dirulaguntzak (60.000€) eta, bestetik, herriko irabazi asmorik gabeko taldeek garatuko dituzten kultur sormen lanak egiteko dirulaguntzak (10.000€).

Lehen atalean, kultur arloko ekintza bat edo programazio oso bat antolatzen duten talde eta erakundeek eskatu ahal izango dute laguntza. Beti ere proiektua Oñatin gauzatzen bada. Ez dira kontuan hartuko Udalaren beste dirulaguntzaren bat jasotzen duten ekimenek.

Bigarren dirulaguntza lerroa Oñatiko kultur sortzaileei zuzenduta dago, eskatzaileak Oñatin erroldatuta egon behar baitu (talde bat bada, kideen erdiak, gutxienez).

Dirulaguntza hauen bidez maketen grabazio eta edizioa, komiki, fanzine edo bestelako kultur argitalpenen edizioa, antzezlan edo ikus-entzunezkoen produkzioak, edo bestelako sorkuntza lanak babestu nahi dira.

Martxoaren 13a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak udal bulegoetan.

Euskara sustatzeko dirulaguntzak

Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko aurreko emango dituen dirulaguntzen deialdia egin du udaleko Euskara Zerbitzuak. Hiru laguntza lerro zabaldu ditu.

Alde batetik, errotuluak, irudi korporatiboa eta webgunea euskaraz jartzen dituzten entitate-entzako laguntzak daude. (2.000€ guztira).

Bestalde, euskara ikasteko dirulaguntzak daude, euskaltegian matrikulatu eta diru-sarrera baxuak dituztenentzat (4.000€ guztira).

Azkenik, urriaz geroztik Oñatin burutzen ari den Aisialdiko Begirale ikastaroan parte hartzen ari diren gazteei zuzendutako diru-atala dago, 3.715 euroko dotazioarekin.

Egindako ikastaroa bukatu eta hurrengo hilabetearen aurkeztu beharko dira eskaerak. Errotuluak jartzeko eskaerak berriz, errotuluak jarri aurretik egin behar da.



FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



2013ko irailean abiatu genuen ibilbidean, herriko espazio huts bati etorkizuna irudikatu nahi izan genion. Hemen sortzen ari den proiektua da **ELTZIA, HERRI SORMENAREN ETXEA**

ZERTAN OINARRITZEN DA ELTZIA?



NORTZUK DIRA ELTZEKIDEAK?

Grina sozial eta kulturalak garatzeko helburuarekin lan egiten duen herritarra, egitura antolatu nahi norbanako moduan. Irabazi asmorik gabeko lanarekin onura sozial bat sortzen duen eragilea. Definituriko oinarriak bere egiten dituenak, hauek garatzeko konpromisoarekin eta gaur egungo nahiz etorkizuneko herri kultura eta kultur politikan aktibo izango dena eta herrigintza ikuspegi batetik lan egiten duena.



5 ELTZEZ OSATURIKO ETXEA. ZE ESPAZIO DAGO ELTZIAN?

GORPUTZ ELTZIA

Gorputzarekin egiten ditugun edonolako adierazpenak gauzatu ahal izateko eltzia: dantza, antzerkia, yoga...

SORMEN ELTZIA

Sormen artistikoa oinarri duten eragileek planteatzen dituzten espazioak: argazkilaritza tailerra, bertso eskola, mugikortasun tailerra, esperimentazio tailerra...

HERRI MUGIMENDUEN ELTZIA

Kultur eta sormen elkarte eta taldeek beraien eguneroko dinamika gauzatzeko beharrezkoak dituzten espazioez osatua: bulegoak, bilera gelak, aretoak...

AUZO ELTZIA

Auzoko eragileek planteatu dituzten proiektu eta beharrei erantzuten dien eltzia: Lagun Leku, Txantxiki, jai batzordeak,...

MUSIKA ELTZIA

Musika sortzaileek beraien sorkuntza lana gauzatu ahal izateko egokituak izango diren entsegu lokalez osatua: rock taldeak, txaranga, batukadak,...

PROIEKTU ARKITEKTONIKOAREN AURKEZPEN ETA KONTRASTE FASEA

Eltzia egitasmoaren beharretara ETEO zaharreko espazioak nola antolatuko diren adosteko fasea



	AURKEZPENA	KONTRASTEAK
GORPUTZ ELTZIA	OTSAILAK 24 asteartea 19:00 Eltzian	MARTXOAK 10 asteartea 19:00 Eltzian
HERRI MUGIMENDUEN ELTZIA	OTSAILAK 26 osteguna 19:00 Eltzian	MARTXOAK 12 osteguna 19:00 Eltzian
AUZO ELTZIA	MARTXOAK 4 asteazkena 19:00 Eltzian	MARTXOAK 18 osteazkena 19:00 Eltzian
SORMEN ELTZIA	MARTXOAK 14 asteartea 19:00 Eltzian	APIRILAK 28 asteartea 19:00 Eltzian
BATERATZE SAIOA (sormen, auzo, gorputz eta herri mugimenduak batera		

EUSKAL HERRIKO KULTUR PROIEKTUAK EZAGUTZEKO IRTEERA - martxoak 28

EUSKAL HERRIKO KULTUR, ARTE ETA MUSIKA PROIEKTUAK EZAGUTU NAHI?

Bilboko ZWAP, Gernikako ASTRA eta Iparragirre Rock elkarteak ezagutzeko irteera antolatu du Eltzia talde eragileak.



[AUTOBUSA DOAN](#)
[IZANGO DA. BAZKARIA](#)
[15 EURO PERTSONAKO](#)

09:00 Irteera, postetxeko geltokian
10:30 ZWAP Zorrozaurre (Bilbo)
14:30 Bazkaria Gernika-Lumon
16:30 ASTRA
18:30 Iparragirre Rock elkarteak
20:30 Etxean bueltan

Izen-ematea: ekt.eltzia@gmail.com (martxoaren 20a baino lehen)



www.zwapbilbo.com



www.astragernika.net



www.iparragirrerock.com



MARTXOA, EMAKUMEEN HILABETEA

Martxoaren 8an ospatzen den Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Udaleko Berdintasun sailak eta herriko Sare Feministak (Andraitx eta Oñatiko Emakume Asanbladak) hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

MARTXOAK 3 - 13 / Kultur etxean, egunero, 18:00-20:00

ERAKUSKETA-LITERATUR ARETOA 'ITSASPEKO BIHOTZAK'

Genero berdintasuna haur literaturaren bidez lantzea. Horixe da Galtzagorri elkarteak prestatu duen 'Itsaspeko bihotzak' literatur aretoaren helburua. Galtzagorri elkarteak haur eta gazte literaturarekin dihardute lanean egunero, eta kezkatuta daude haur zein gazte literaturan ageri diren neska eta mutilen estereotipoekin. Horregatik erabaki dute genero berdintasunaren gaia jorratzea, euskarazko haur literatura oinarri hartuta. 'Itsaspeko bihotzak' aretoan, ibilbide didaktiko bat proposatzen dute, urpean, altxorren bila. Ibilbidean zehar hainbat gai landuko dituzte, ipuinak kontatuz, ikus-entzunezkoak ikusiz, abestiak kantatuz, jolasak eginez...



MARTXOAK 11 / Kultur etxean, 18:30

LITERATURA ETA MUSIKA ('Mujeres Vascas') TOTI MARTINEZ DE LEZEA idazlea eta MAITE ITOIZ abeslaria

Toti Martinez de Lezea idazleak eta Maite Itoiz abeslari nafarrak 'Mujeres Vascas' izeneko ikuskizuna eskainiko dute, kontakizunak eta muska uztartuz. Emakumearen eta Euskal Herriaren historian zehar eman den desberdinkeria inguruan jardungo dute. Totiren ahotsean istorioak, ipuinak eta mitoak entzungo ditugu, eta Maite Itoiz abeslari eta musikari nafarrak musikaz lagunduko ditu kontakizunak, harpa eta lautearen bidez. **Sarrera doan.**



MARTXOAK 18 / Kultur etxean, 19:00

ANTZERKIA 'MEDEA MATERIAL'

Elkar Hezi ikastetxeko Kultura Klasikoko ikasleen eskutik, 'Medea' antzezlanak ikusteko aukera izango dugu. Heiner Müller (1929-1995) antzerkigile alemaniarren tragedia garaikidea da, greziar mitologiako izaki garrantzitsuenetakoa izan zen Medearen figuraren oinarritua. Bere bi semeak hil ondoren, Medearen azken orduak erakusten ditu. Protofeminismoaren adierazle dugun emakume honen bizipena. Antzinako Grezian Mendebaldeko zibilizazioaren sustraierako batzuk aurkitzen dira. Gure guarko imaginarioaren iturriek antzinako kontakizunetan dute sorburua: bortizkeria, genero zapalkuntza, ezberdina-atzeritarra denari beldurra... gaur bizi ditugunak badira ere, klasikoak diren idazlanetan ditugu. Antzezlanak gaztekeraz izango da, eta Bea Insa valentziarrak egingo ditu aktore lanak. **Sarrera doan.**



GRAFITIAK, MUSIKA ETA FESTA MARTXOAK 6

Gaztelekuak, ludotekak eta udaleko Berdintasun sailak antolatu, bereziki gazteei zuzendutako ekitaldiak izango da. 'MendEZ mende emakume' hiru grafiti marraztiko dituzte gazteek, emakumearen garapena irudikatuz. Graffitietako irudiekin txapak ere egingo dituzte, eta musika ere egongo da ekitaldia girotzeko. Arratsaldeko 16:30etatik 19:00ak arte iraungo du. Eguraldia ona bada plazan, eta bestela aozkako gunean.



OÑATIKO SEXU AHOALKULARITZA ZERBITZUAREN URTEBETETZE FESTA MARTXOAK 13

Orain dela urtebete Gaztelekuan abian jarri zen sexu-aholkularitza zerbitzuaren urtebetetze festa, Gaztelekuan arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

Batu feminismora!!!

■ OÑATIKO SARE FEMINISTA (ANDRAITZ eta EMAKUME ASANBLADA)

MARTXOAK 8 EMAKUME LANGILEON NAZIOARTEKO BORROKA ETA ELKARTASUN EGUNA

Emakumeon eskubideen aldarrikapenaren eguna da martxoaren 8a. Aldarrikapen egun honek ez du gertaera bakar batean bere jatorria, XX. mende hasieran bizi zen testuinguruan kokatu behar da: botoa emateko eskubide falta, lanpostuak lortzeko zailtasunak, lan baldintza kaskarrak...

Gaur egun ere gauzak ez dira asko aldatu; berdintasunean bizi garela sinistartzeko digute, baina:

- Munduko aberastasunaren %1 bakarrik dago emakumeen esku.

- 4 behartsutatik 3 emakumeak dira.

- Kartzeletan emakumeak dispersioa askoz gehiago bizi dute, tortura espezifikoak bizi dituzte. Euskal Herriko kartzeletan ez dago ama izateko aukerarik.

- Eremu sozial, politiko eta ekonomikotan positibotzat hartzen diren baloreak maskulinitateari atxikitzen zaie: indarra, lehiakortasuna... Feministateari atxikitutakoak, berriz, ez dute errekonozimendurik: sentiberatasuna, malgutasuna...

- Gorputzarekin zer gertatzen da? Geurea ala jendartearena da? Ala gizonena?

- Komunikabideetan agertzen diren baloreak esklabo egiten gaituzte, manipulatu eta objektu gisa erabiliz.

Gure aldarrikapenak egun honetan eta urteko beste 364tan hauek dira, besteak beste:

- Gure gorputzen gainean erabakitzeak eskubidea: abortatzeko eskubidea, politik izateko edo ez izateko eskubidea etab.

- Sexualitatea era askean bizi eta adierazteko askatasuna.

- Emakumeen parte hartzea politika publikoetan.

- Soldata arteko berdintasuna lortzea.

- Lan baldintzen duintasun eta parekidetasuna.

- Sexuen arabera lan banaketa gaitzetzeko pausuak ematea eta sistema aldatzea.

- Indarkeria matxista ikustarazi eta honekin amaitzea.

- Erabakitzeak eskubidea, askatasuna eta berdintasuna.

- Jendarte eredu parekidea.

**EMAKUMEON ASKATASUNIK GABE
EZ DAGO HERRI ASKERIK!!**



REYES PRADOS / ETBko AURKEZLEA

“Euskarak harrapatu egin nau

Sevillarra, “de pura cepa”, “nola itzultzen da hori?” galdetzen zuen Reyes Pradosek, “sevillar peto petoa, esan daiteke?”. Halaxe aurkeztu zuen bere burua ETBko aurkezle ezagunak. Hala ere, andaluziar peto petoa izanagatik ere, urte eta erdian bere burua euskalduntzea lortu du, udal euskaltegian eskaini zuen berbaldian erakutsi zuen moduan. Euskara jator, garbi eta aberatsean azaldu zigun euskalduntzen izan duen esperientzia eta euskararekiko duen harremana

Duela urte eta erdi erabaki zenuen euskara ikasten hastea. Zer dela eta?

Arazoi asko daude. Askok gustatzen zaizkiz hizkuntzak, oro har, eta euskarak ere jakinmina eragiten zidan. Gainera, uste dut hizkuntza dela kultura bati nortasuna ematen diona, eta Euskal Herriaren kasuan, are gehiago, esango nuke. Beraz, bere etxean hartu nauen herria ezagutu eta errespetatu nahi badut, euskara ikasten saiatu behar nuela erabaki nuen.

Urte eta erdian oso euskara maila ona lortu duzu. Nola?

Saiatuta. Egunero bost ordu ematen ditut euskaltegian, eta gero etxean ere egiten dut lan. Oso inportantea da euskaltegian ikasitakoa praktikan jartzea; horregatik, iazko udan Errezilgo baserri batean egon nintzen hiru bat astez. Oso aberasgarria izan zen, eta gaur egun ere, bisitatxo bat egitera joaten naiz ahal dudanean.

Bestalde, lagun euskaldun batzuk ditut, eta gero eta gehiagotan hitz egiten dut euskaraz beraiekin. Hasieran kostatzen zitzaidan txipa aldatzea, gazteleraz ohituta genudelako, baina saiatzen dira niri euskaraz egiten eta izugarri eskertzen diet.

EGA titulura aurkeztekotan omen zaude.

Bai, datorren astean daukat atarikoa. Ez dakit aterako dudan, baina aurkeztu ahal izatea bakarrik sari bat da niretzat. Nahi nuke, bai, EGA agiria eskuratu, baina nire benetako helburua da gai izatea euskaraz ondo hitz egiteko eta, ahal bada, euskaraz bizitzeko.

Egunero bost orduz joaten naiz euskaltegira.

Kultura zoragarri bat ezagutzeko aukera eman dit euskarak.

Zer eman dizu euskarak?

Hainbat gauza, baina, batez ere, kultura zoragarri bat deskubritzeko aukera eman dit: Euskal Herriko ohiturak, dantzak, abestiak... Gauza asko, benetan. Horregatik, eskertu egiten diot euskarari bere ahalegina. Harrapatu egin nau!

Zein aholku emango zenioke euskara ikasten ari denari?

Ez amore emateko. Jarraitzeko eta jarraitzeko ikasten, bai euskaltegian eta

baita kanpoan ere. Euskal Herriaren zati oso garrantzitsua da euskara, eta saiatu egin behar dugu ikasten; agian ez gara perfektok hitz egitera iritsiko, baina gutxienez saiatu egin behar da.

Ikusiko al zaitugu ETB1eko saioaren bat aurkezten?

Dagoeneko ari naiz kolaborazioak egiten, ‘Euskadi Zuzenean’ saioan, edo Euskadi Gaztean, esaterako. Laister, Jaime Otamendiren ‘Ur handitan’ programa berrian ere ikusiko nauzue gonbidatu bezala. Gustatuko litzaidake, bai, benetan, neure saioa aurkeztea euskaraz, baina oraingoz zaila ikusten dut.



Euskaltegiko ikasle eta irakasleek Sevillana bat eskaini zioten Reyesi euskaraz



BERTSO SAIOA

Arrikrutzeko koban

KOBEN EGUNAren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrikrutzen

Martxoaren 15ean ospatuko da aurten KOBEN EGUNA, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrikrutzen. Astebete lehenago (martxoak 8) izango da ekitaldi nagusia, bertso saioa egingo baita Arrikrutzeko koba barruan, 17:00etan. Amets Arzallus txapeldunarekin batera, Aitor Mendiluze eta herriko azken bi txapeldunak (Andoni Goitia eta Maider Arregi) ariko dira. Sarrerak (13€) mugatuak dira eta, beraz, aurrez egin behar da erreserba 943082000 edo 943783453 telefonoetara deituta.

BISITAK ERDI PREZIOAN

Martxoaren 15ean, Koben Eguna ospatzeko, Arrikrutzeko Kobara egingo diren bisita guztiak erdi prezioan izango dira.

LEIZE-LEHOITIK POTTOKARA

Pottokalekurekin elkarlanean, 'Arrikrutzeko leize-lehoitik pottokara arte' izeneko bisitaldi berezia egingo da **martxoaren 22an**. Arrikrutzeko koban emango zaio hasiera, garai batean leizeetako lehoiaren garaian zeuden animaliak eta gaur egunera arte bizi-irautea lortu duten aberak aztertuz. Horietako bat da Euskal Pottoka, eta animalia hau hobeto ezagutzeko Pottokaleku zalditegian emango zaio amaiera bisitaldiari. Goizeko 10:00etan hasiko da bisitaldia. Doan izango da.

ESPELEOTXIKI IRTEERA

6-15 urte arteko gaztetxoei zuzendutako Espeleotxiki irteera egingo da Arrikrutz-Oñatiko kobetan, **martxoaren 29an**, goizeko 10etan. Lur azpiko mundua ezagutzeko aukera paregabea, Gesaltza-Arrikrutz sistema karstikoko alderdi aktibo eta fosiletan murgilduz.

OHIKO ORDUTEGIA ARRIKRUTZEN

Martxoarekin batera ohiko ordutegira itzuli da Arrikrutz-Oñatiko Koba. Astegunetan 10:00-14:00 eta 15:30-17:30; astelehenetan itxita. Asteburuetan, 09:30-14:30 eta 15:30-17:30. Azkenaldiko euriteen ostean ikusgarri dago sasoi honetan Arrikrutzko koba, urez gainezka, ondorengo bideoan ikusten den moduan. <http://youtu.be/Vnen3-qV8UA>



**MARTXOAREN 8AN
IZANGO DA BERTSO
SAIOA. ERRESERBAK
EGITEKO: 943082000
edo 943783453**



BISITA GIDATUAK

KAKAOTIK TXOKOLATERA BIDAIA

Turismo Bulegoak eta Txokola-teixak antolatuta, 'Kakaotik txokolatera bidaiari' izenburupean bisita gidatuak egingo dira **martxoaren 14an** (euskaraz) eta **15ean** (gazteleraz). Oñatin kakaoa nola sartu zen, eta gerora izan zuen garapena eta garrantzia ezagutzeko aukera ederra izango dugu. Turismo bulegoan hasiko da bisitaldia 12:00etan, eta Txokolateixan amaituko. Erreserbak 943-783453 zenbakian.



OÑATIKO ERROTAK

Martxoko azken asteburuan Oñatin historian zehar izan diren erroterei buruzko hitzaldia emango du **Jerardo Elortzak** turismo bulegoan. Bide batez, turismo bulegoaren ondoan dagoen **San Migel errota** bisitatzeko aukera egingo da.

PERTSONA NAGUSIEN ZAINZARAKO ZERBITZUA



Tfn: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

lurritia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRATIO LANAK

- Langileak aurkitzea
- Kontratua egitea
- Gizarte Segurantzaren alta ematea
- Nominak egitea

Beneditarren elizaren sagaratzearen 25. urteurrena ospatuko dute

Martxoaren 21ean beteko dira 25 urte Beneditarren Monasterioko Elizaren Dedicazioa edo Sagaratzea egin zela. Jainko-kultua egiteko toki bat sagaratzea edota dedikatzea, ilusio-, lan- eta eskuzabaltasun-historia luze baten une esanguratsua izan zen Komunitatearentzat.

Aurten, martxoaren 21ean (zapata), efemeride haren 25. urteurrena ospatzean, Donostiako Gotzaina zen On Jose Maria Setienek presiditu zuen ospakizunaren poza biziberritu egingo dute. Hala, On Jose Maria Setien buru delarik 18:00etan egingo den Eukaristia ospatzera gonbidatzen ditu herritarrek Beneditarren elkarteak.

Ospakizun horretan Donostiako EASO Gregoriano Koruak hartuko du parte, eta bukaeran gregoriano kantaldi txiki bat ere eskainiko dute.



Martxoaren 21ean ospatuko dute, Jose Maria Setien gotzain emerituak emango duen mezarekin. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



Artzain eskolako ikasleak gazta egiten



JULEN BIAIN / Gomiztegiko Artzain Eskolako ikaslea

Artzantza zer den ikasi nahi nuen

Julen Biain oñatiarra da aurten Gomiztegiko artzain makila jaso duten bederatzi gazteetako bat. Etxe inguruan beti ezagutu izan ditu ardiak, eta hala, ikasketak amaitu ostean (Administrazioa eta Marktineko goi mailako ziklo bana eginak ditu) Gomiztegiko Artzain Eskolan eman zuen izena iaz.

Gustura dago bertan ikasi eta bizi izandako esperientziarekin. "Oso interesgarria izan da ikasturtea. Artzain bizimodua zer den ikasi dut, bere alde on eta txarrekin". Gauza asko ikasi ditu, baina atera duen ikasbide nagusietako bat zera da, inbertsio handia egin behar dela artzantzatik bizi ahal izateko. "Laguntzak badaude, baina oso garbi eduki behar duzu, apustu sendoa egin behar baita". Oraingoaz, osabari lagunduko dio artaldearekin, eta poliki poliki erreleboa hartzen joatea da asmoa.

Eusko Jaurlaritzaren babesa duen Gomiztegiko Artzain Eskolak 18 urte bete ditu aurten. Urte guzti hauetan 232 gazte pasa dira bertatik, eta horietatik 146k dihardute profesional gisa.

EAJren Aldun Nagusi eta alkate izateko hautagaiak batera Oñatin

Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagai jeltzale Markel Olano Oñatin izan zen otsailaren 19an, gure herriko errealitate ekonomiko, sozial eta kulturala ezagutzen. Miren Elgarresta alkategaiak lagundu zion herriko zenbait enpresa eta eragile sozialekin egindako bileretan. Biek ala biek azpimarratu zuten industriak duen garrantzia Gipuzkoan, enpleguaren %85 sortzen duelako, eta, beraz, enpresa eta gizarte eragileekin elkarlanean aritzeko konpromisoa agertu zuten. Enpresa handiak ez ezik, enpresa txiki eta autonomoen garrantzia ere azpimarratu zuten. Denak dira beharrezkoak aberastasuna sortu eta ongizateari eusteko.



Txandaren OUTLETa / martxoak 7-8

Datorren asteburu honetan, martxoak 7 eta 8, OUTLETa egingo dute TXANDA elkarteak dendariak, eta kalera aterako dituzte beraien produktuak oso prezio merkeetan. OUTLETa dendan geldirik duten generoari irteera ematekobide bat da.



Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baseri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".



GAZTE MARTXAN parte hartzeko deia egin du Ernaik

**Apirilaren 3tik 5era egingo da
Lekunberritik Berriozarrera**

ERNAI eta AITZINA gazte erakundeek antolatuta, apirilaren 3, 4 eta 5ean egingo da aurtengo Gazte Martxa. Lekunberrin abiatuko da, eta Irurtzunen eta Berriozarren geldialdiak egin ostean, apirilaren 5ean Iruñean egingo den Aberri Egunekeko manifestazioan amaituko da.

Euskal Herriko txoko guztietako gazteak elkartu, elkar ezagutu, ideiak partekatu, elkarrekin eztabaidatu eta parranda egiteko aukera ere egongo da bertan: tailerrak, mahai-inguruak, kontzertuak... eta abarren bidez.

KONTZERTU MARATOIA

Aurtengo berezitasunen artean, Irurtzunen igaroko duten lehen gaua animatzeko kontzertu maratona antolatzen ari dira, eta Euskal Herriko gazte talde guztiei zabaldu nahi diete bertan jotzeko aukera. Beraz, interesa duten taldeek www.gazteokmartxan.info webgunean eman dezakete izena, 'Gazte Oihua' atalean. Gero, bozketa bidez aukeratuko dira jaialdian parte hartuko duten sei taldeak.

Oñatiko Ernaik animatu egin nahi ditu herriko gazte guztiak Gazte Martxan parte hartzera. Oñatitik autobusa jartzeko asmoa dute. Martxoan zehar emango dituzte xehetasun gehiago.



ERABAKIA EHUNTZEN ekimena abian da

Gure Esku Dago taldeak erabakitzeke eskubidearen alde antolatu duen 'Erabakia Ehuntzen' ekimena abian da Oñatin. Oihal zatietan ahalik eta herritar gehien atxikimenduak jasotzea da ekimen honen helburua. Oihal zati edo unitate bakoitzean hogeit hamar herritarren aldarriak jasoko dira. Gero, apirilaren 25ean, Oñatin bildutako oihal zati guztiak josiko dituzte, eta ekainaren 20an herriz herri ehundutako oihalak josiz, hautestontzi erraldoiak osatuko dira hiriburuetan.

Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak bulegoa zabalduko du datozen egunetan Kale Barriako 47an, kanpaina hau koordinatzeko. Bertan eskuratu ahal izango dira oihalak, txartelak eta ekimen hau aurrera ateratzeko behar den materiala.

DEBAGOIENEO ERAKUNDE SANITARIOA

Urologiako espezialistekin euskaraz!



Debagoieneko ospitalean euskarazko arreta-zirkuitoa jarri dute abian Urologia espezialitatean. Horrek esan nahi du, hemendik aurrera nahi duten herritar guztiek euskaraz egin ahal izango dituztela kontsultak Urologiako espezialistekin, eta profesionalen arteko harremana ere euskaraz izango dela.

Azpimarratzekoa da, gainera, ekimen hau Urologia espezialitateko profesional talde batena izan dela.

Profesional hauek edonoiz jardun ahal izango dute euskaraz, jakina, baina astean egun batean, ostegunetan, zerbitzua euskaraz eskainiko dela bermatzen dute, bai goiz eta bai arratsaldeko kontsultetan.

Aukera hor dago, beraz, eta orain herritarroei dagokigu zerbitzua euskaraz jaso nahi dugula esatea, Urologiako espezialisten ekimenak arrakasta eta jarraipena izan dezan. Egitasmo hau aitzindaria da Osakidetza osoan, eta helburua da etorkizunean beste espezialitate batzuetara hedatzea euskarazko arreta-zirkuitoak.



MAPFRE
Oñati

Peritokale, 5
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65
Faxa: 943 78 07 85

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta

- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 beheak • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@telefonos.es

MONITORE ZERBITZUA jarri dute kiroldegiko gimansioan

Hainbat bazkide eta erabiltzailek egindako eskariari erantzunez, kiroldegiko gimnasioan monitore zerbitzua jartzea erabaki du Udal Kirol departamentuak. Martxoaren 2tik ekainaren 13ra eta irailaren 14tik abenduaren 23ra (jai egun eta zubietan izan ezik) eskainiko da zerbitzua, Urtebeteko proba egin nahi du kirol sailak, eta urte amaieran egingo da zerbitzuaren inguruko balorazioa.

Kiroldegian gimnasia eta fitness zerbitzuak ematen dituen Egoitek S.L. enpresa bera arduratuko da monitore zerbitzua eskaintzeaz. Zerbitzu berriaren urteko kostua 18.000 eurokoa izango da.

ZAINTZA ETA AHOLKULARITZA

Zaintza eta aholkularitza zerbitzuak ematea izango da gimnasioko monitorearen egitekoa. Alde batetik, aforoa kontrolatu, segurtasuna bermatu, erabilera-araudia betearazi, eta gimnasioko ekipamenduaren zaintza arduratuko da.

Aholkularitza mailan, jarduera fisiko osasuntsua sustatzeko, eta gimnasioan dauden makina eta ekipamenduak egoki erabiltzeko aholkuak emango ditu, beti ere modu orokorrean. Ez da aholkularitza zerbitzu pertsonalizaturik emango. Halako beharra duten pertsonak herriko bestelako zerbitzu espe-zializatueta bideratuko dira.



EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

- ▶ **ASTELEHENAK:** 15:00 - 19:00
- ▶ **ASTEARTEAK:** 07:30 - 11:00 eta 17:00 - 21:00
- ▶ **OSTEGUNAK:** 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00
- ▶ **OSTIRALAK:** 09:00 - 11:00

ASTEBURUETAN: Tarteka, ostiral arratsaldetan (17:00-20:00) eta larunbat nahiz igande goizetan (09:00-12:00) ere emango da zerbitzua. Martxoan, adibidez, bi ostiral arratsaldetan (6 eta 27) eta bi igandetan (15 eta 29) egongo da monitorea kiroldegian.

OÑATIKO XXIV. DUATLOIA / MARTXOAK 14 - 16:00

OÑATIKO DUATLOIA **sprint** erakoa izango da aurten

- ▶ **Bizikletako zirkuitoa herri barruan izango da.**
- ▶ **Arregiko aldapa igo beharko dute birritan.**

Oñatiko Duatloia, XXIV.a, martxoaren 14an jokatu da, eta berritasun inportanteak izango ditu ibilbideari dagokionean, batez ere, bizikletako partzialean. Azken urteetako edizioetan Deskargako buelta egin izan dute lehiakideek, baina trafiko arazoak gutxitzeko asmoz, aurten Oñatiko herri eremuaren barruan izango da bizikletako zirkuitoa, oso osorik.

Konkretuki, 2005eko Euskal Herriko Itzuliko erlojupekoan egin zen ibilbidearen oso antzekoa izango da, Arregiko (Garagaltza) aldapa motz baina gogorra tartean delarik. Duatletek bi itzuli egin beharko dizkiote 11,4 km.-ko zirkuitoari. Hau da, bizikletako probaren erdian duatletek foruen plazatik pasako dira eta, beraz, bertan dauden zaleek hobeto jarraitzeko aukera emango du zirkuito berriak.

Korrikako ibilbidea ere ohi baino motzagoa izango da. Foruen enparantza-Kale Barria-Maria Irizar-Kurtze Bide-Moiua (Errekalde auzoaren hasieraraino)-Bakardadeko Ama-Kale Zaharra-Lizaur-Enpresagintza fakultatea-Unibertsitate etorbidea-plaza. Guztira 2,6 km.-ko ibilbidea. Lehenengo korrika saioan bi itzuli egingo dituzte, eta bigarren saioan (bizikletakoaren ostean) buelta bakarra.

Horrenbestez, duatletek egin beharreko lana hauxe izango da: 5,2 km. korrika, 22,7 km. bizikletan, eta 2,6 km. korrika (aurreko edizioeta 10-40-5 izaten zen) eta, beraz, Sprint erako duatloia izango da aurtengoa. Euskadiko zirkuitorako puntuagarria. Informazio gehiago: oinatikoduatloia.com.



Xabier Luis sasoi puntu oso onean iritsiko da Oñatiko duatloira. Ermuako duatloian 4. sailkatu zen eta Mungian 3.

BIZIKLETAKO PARTZIALEKO IBILBIDE BERRIA

11,4 kilometro ditu Oñati Triatloi Taldekoek bizikleta partzialerako prestatu duten ibilbideak. Foruen enparantzan abiatuta, Arantzazuko Ama kaletik saihesbidera irteten eta Madalenako errotondoraino joango dira. Bueltarakoan, Torreausoko bidegurutzeari hartu eta Zañartutik Lamiategiraino joango dira, Arregiko aldapa motz baina pikoa igotzeko. Handik Garagaltza auzoan behera, San Juan Kalera eta plazara. Bi itzuli egingo dizkiote zirkuitoari.

Euskadiko Kros txapelketa irabazi du Aloña Mendik

Aloña Mendiko atletismo taldeak Euskadiko kros luzeko txapelketa irabazi du aurrenekoz historian. Elgoibarren jokatu zen, otsailaren 15ean, hogeitaldereen partehartzearekin, eta Aloña Mendi nagusitu zen, Durango eta Santurtzi taldeen aurretik, Sergio Garcia, Yeray Varela, Mikel Ugarte, Imanol Cruz eta Alberto Revueltak lortutako puntuei esker. Bestalde, martxoaren 1ean Caceresen jokaturako Espainiako txapelketan Aloña Mendi 13. sailkatu zen 40 talderen artean. Horrenbestez Aloña Mendik hiru urte daramatza jarraian aurreneko hamabosten barruan sailkatzen Espainiako txapelketan.



Espainiako txapelketan 13. sailkatu da Aloña Mendi

SARA GOMEZ ESPAINIAKO TXAPELKETARA

Sara Gomez Aloña Mendiko junior mailako korrikalaria Espainiako pista estaliko 1500 metroko txapelketarako sailkatu da 4'58''66ko denborarekin. Otsailaren 7an Anoetako belodromoan jokaturako Euskadiko Txapelketan lortu zuen Sarak estatuko txapelketarako minima (5:01:00), bere ordura arteko marka 9 segundotan ondus. Martxoaren 7an jokaturako da Espainiako txapelketa Valentzian.

Zazpi domina Euskal Heriko igeriketa txapelketetan

Aloña Mendiko igerilariak zazpi domina lortu zituzten otsailaren 14-15ean Irunen eta Iruñean jokatu ziren Euskal Herriko txapelketetan. Kadete mailan **Ainhoa Redinek** zilarrezko domina lortu zuen bizkar erako 100 metrokoan. Manex Biain eta Enaitz Ibabek ere lan ona egin zuten.



Bestalde, Junior mailan, **Josune Odriozolak** urrezko lau domina eskuratu zituen 50, 100, eta 200 Libre, eta 50 Bizkarrean. **Nerea Diazek** ere emaitza onak lortu zituen; 200 Bizkarrean bigarren sailkatu zen, eta estilo bereko 50ekoan hirugarren. Gainera, Espainiako txapelketarako minima lortu zuen 200ekoan.

Aitor Otxoa saritu du federazioak



Euskal Mendi Federazioak Aitor Otxoa saritu zuen otsailaren 20an osapatu zen mendizaletasunaren XIX. galan. Mendi eskiko modalitatean oñatiarrak egin duen ibilbidea aitortu nahi izan du euskal federazioak, 'Andres de Régil' izena daraman sariaren bidez. Duela 13 urte hasi zen mendi eskian lehiatzen, eta bera izan da kirol honen aitzindarietako bat Euskal Herri mailan. Euskadiko txapelduna izan da hainbat aldiz, eta kirol honetan munduan den proba gogorrenetakoa, 'Pierra Menta' hamaika aldiz jarraian egin du.

MENDI IRTEERA - MARTXOAK 15

Izki Parke Naturala

Aloña Mendiko hile honetarako prestatu duen irteera Arabako Izkiko natur parkean izango da. Apellanizetik abiatu eta Obekurin amaituko da ibilaldia, San Cristóbal (1057m.) gainditu ondoren. Ez du zailtasunik, baina luzea da (21km.), 6 ordu inguruan egiteko. Desnibela, 700m. inguru. Martxoaren 12a da izena emateko azken eguna. Bazkideak 10€; ez bazkideak 13€ eta langabetuak 5€. Gogoratu, federatuta egon behar dela parte hartzeko.

ZUBIKOA KIROLDEGIA - MARTXOAK 28

Zhunba eta fit bike maratoniak

E-goitek enpresak jaialdi berezia antolatu du martxoaren 28rako. Egun osoko kirol festa izango dugu kiroldegian. Goiz partean (10:00-12:00) I. Zhunba Maratoia egingo da. Gero, arratsaldean (16:00-19:00) Zubikoako V. Areto Bizikleta Maratoia ospatuko da; 40 minutuko lau saio. Izen-ematea martxoaren 25ean itxiko da, aurrez plazak betetzen ez badira. (943716375/zubikoa@oinati.net).

TXIRRINDULARITZA - MARTXOAK 22

Gaztetxoaren proba Oñatin

Benjamin, Alebin eta Infantil mailako probak jokaturako dira martxoaren 22an Ibarra (Enpresagintza fakultatearen inguruan). Aloña Mendi-Lizarralde Kirolak taldeko 17 txirrindulari ariko dira bertan.

FUTBOLA - MARTXOAK 24

Iñigo Martinez Oñatin

Iñigo Martinezen izena daraman Oñatiko Realzaleen lagunartea 2013ko urrian eratu bazen ere, martxoaren 24an egingo dute aurkezpen ofiziala Gaztelekuan, 18:30etan.



GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztiako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

PINTURAS URBIA MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Parapentea Debagoienean

Kurtzeberriko Distantzia Txapelketa antolatu du Debagoieneko Amillena Aire Kirol Taldeak

Andraitzeko ikuspegia parapentetik (Amillena)

Debagoieneko Amillena Aire Kirol Taldeak urtero antolatzen du Kurtzeberriko Distantzia Txapelketa. Kurtzeberri mendi tontorretik aineratu eta distantzia luzeana lortzean datza txapelketa. Kurtzeberri Urkuluko urtegiaren inguruan kokatuta dago, eta oso ohikoa da hor parapenteak ikustea hegan egiten.

Normalean Kurtzeberriko inguruan egiten da hegan, eta baldintza onak badira, Aloña edo Aizkorriaraino. Baina Kurtzeberritik oso urrun joan ahal da. Distantzi luzeke hegaldi mota hauek indartu nahi ditu Amillena taldeak, eta horretarako antolatzen da txapelketa hau.

Joan den urtean Joxe Kastillejo izan zen irabazlea. Kurtzeberritik SantiKurutze Kanpezura hegan egin zuen. Distantzia zuzena 42 km da, eta hegaldiaren iraunpena ia 3 ordu izan zen. Ikusiko dugu zer nolako hegaldiak egiten diren aurten.

**IAZKO
IRABAZLEAK
KURTZEBERRITIK
SANTIKURUTZE
KANPEZURAINO
EGIN ZUEN
HEGAN**



PARAPENTE IKASTAROAK

Udaberria da garairik onena ikastaro bat egiteko, ikastaroa egin eta gero uda datorrelako eta hegan egiten jarraitzeko aukera egoten delako.

Euskal Herrian hainbat eskola daude:

- Parapente Gasteiz (Gasteiz): www.parapentegasteiz.com
- Euskal Parapente Eskola (Urduña): www.evparapente.com
- Urruti Sports (Donostia): www.urruti.com
- Parapente Bidasoa (Irun): www.smaap.com

Ikastaro bat eginda daukatenek **Debagoiena Amillena** Taldearekin kontaktatu ahal dute, lagunartean hegan egiteko eta ikasten jarraitzeko, edo federatu lizentzia eskatzeko. Oso garrantzitsua da besteekin hegan egitea, batez ere lehenengo urteetan, hegan egiten ikastea ez delako inoiz bukatzen.

www.amillenahegan.com

EUSKADIKO TXAPELKETA

Euskadiko Txapelketa Arangoiti mendian antolatu genuen, Irunberri-Lumbier eta Yesa urtegiaren ondoan.

Hauxe zen egin beharreko hegaldia: Arangoiti mendian aineratu, Yesa inguruan bi balizatik pasatu, eta Jaca herrian zegoen helmugaraino iristea; 67 kilometro guztira.

Partehartzaileak nahi dutenean aineratu ahal dira, baina lasterketa ordubietan hasten da: ordura arte inor ezin da Arangoititik 2 kilometro baino urrunago joan. Modu honetan, lasterketa hasten denean, denak daude airean, 65 parapente, eta guztiek dituzte aukera berberak.

Bakarrik 13 lagun iritsi ziren helmugara. Debagoiendarren artean **Joxe Kastillejo**, **Iñigo Gabiria**, **Iñigo Diaz** (oñatiarra) eta **Alberto Matute** izan ziren helmugan.



67 KM.-ko HELGALDIA
Arangoitin aineratu, Yesa inguruan bi balizatetik pasa, eta Jacareino egin behar izan zuten hegan

Iñigo Diaz oñatiarrak osatu zuen 67 km.-ko hegaldia

Ireki era berria

ITURRITXO JATETXEA

Bezeroaren beharretara egokituriko eskaintza
Teknika berri eta tradizionalen arteko fusioan oinarritzen ditugu gure eguneroko baloreak

- * Eguneko menua 11€
- * Gaueko menua 12€
- * Asteburuko menua 25€



11€
eguneko
menua

Plater konbinatuak
Karta zabala
Errazioak
Pintxoak
Kafea



Ospakizun handietarako
prestatutako jatetxea.

Herrigunean eta
autorik hartu gabe!

ORDUTEGIA:

Astegunetan
9:00-00:00
Asteburu eta jaegunetan
11:00-2:00

ERRESERBAK:

Itelbidea,
Atzeko Kale, 32 behe
Telefonoa:
943 71 60 78

iturritxo
JATETXEA



Izena: Ainhoa Guridi

Ogibidea: Irakaslea

Zer da bizikleta zuretzat?

Egunerokotasuneko garraiobidea.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Egin beharreko desplazamenduak azkarrago egiten ditudalako erabiltzen dut, bai lanera joateko eta baita herrian mugitzeko ere.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Abantaila ugari ditu; ez-kutsagarria, jarduera fisikoa egiteko modua, eroso... baina niregan indar handiena duena azkartasuna da, Oñati herria txikia izanik, bizikletarekin distantziak oso azkar egiten direlako.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Herriaren erdigunea eta orokorrean herria, bizikletarentzat gehiago moldatu beharra dagoela uste dut. Bide onetik goazela uste dut, eta azpiegiturak hobetu ahala erabilera ere handitu egingo da.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Etorkizuna baikor ikusten dut. Gazteen artean geroz eta ohikoagoa da bizikletaren erabilera, horrek ekar ditzakeen onura guztiekin, ohitura, kultura bihurtu daitekeelako. Gainera, gizartea, geroz eta sentibilizatuago dagoela uste dut.

Munduan zehar -Bicicletas Sin Fronteras-

Bizikleta berria, bizitza berria

Azken urteetan milaka haurrek beraien bizitza nola hobetu den ikusi dute. 2012 urtetik, Bicicletas Sin Fronteras gobernuz kanpoko erakundeak eginiko ekarpen bati esker, 2.000 bizikletatik gora entregatu ditu beharra duten hainbat lurraldeetan. Indian adibidez, bizikleta bat edukitzeak, 14 urteko neska baten bizian eragin zuzena izan dezake. Desiatu gabeko ezkontza bat ekidin dezake, adibidez.

Bizikletak bertara eramatean, egiten dieten harrera izugarria dela onartzen dute gobernuz kanpoko erakundeko ordezkariak. "Jai bat antolatzen dute. Umeak, gurasoak, alkatea, ingeleseko irakaslea... guztiak irrifarre handi batekin gure zain. Espainiako ume bati auto bat eta etxe bat oparitzea bezalakoa da beraientzat bizikleta". Indian bizikleta batek, 50€ balio ditu eta langile baten batazbesteko hileko soldata 30€-koa da. "Bizikleta batek bizi osoa irauten die. Burnizkoak dira eta puskatuz gero, inongo arazorik gabe konpontzen dute".



www.ciclosfera.com

Indiako neskatok bizikleta berriekin.

Merkatua

Elurretako bizikleta

Sno



Aurretik antzerako bizikletak merkatuan agertu diren arren, hona hemen elurretan ibiltzeko bizikleta berritzaile bat. Oraindik merkaturatu gabe dagoen arren, Turkiako diseinu estudio batek egun hotz eta edurtsu hauek aukeratu ditu beraien diseinua plazaratzeko.

Informazioa:

<http://bicycledesign.net/2015/02/sno-a-concept-snow-bike-by-venn/>






• CALBARAGINTZA - CALDERERIA
 Oñateko zehazkia, 25 • Tel.: 943 71 63 60
www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
 Oñateko zehazkia, 25 • Tel.: 943 78 85 65
 Atzeko kale, 32 (erakusketak)

HERRIXA KANTUAN

ekimena jarriko dute abian Ikastolak eta Musika Eskolak

Txantxiku Ikastolak, José de Azpiazu musika eskolarekin elkarlanean, **HERRIXA KANTUAN** izeneko ekimena jarriko du abian. Euskal Herriko hainbat herri eta hiriburutan jadanik martxan dagoen ekimena da hau, eta herritarrentzat aberasgarria delakoan, Oñatin antolatzea adostu dute ikastolak eta musika eskolak, helburu hauekin:

- Euskal kultura zabaltzea kantuen bidez.
- Kantu tradizionalak herritarrengana hurbiltzea
- Herriko kaleak alaitu eta girotzea.
- Familiak euskal giroan elkartzea eta herrigintzan aritzea.

HILEAN BEHIN

Hileko azken larunbatean egingo da kantu-jira. Herriko plazan izango da hitzordua eguerdiko 12:30etan, eta ondoren herriko kaleetan barrena ibiliko dira euskal kantak abestuz. Lehenengo saioa **martxoaren 28an** izango da. Herritar guztiak animatu nahi dituzte ekimen honetan parte hartzera, zenbat eta haur, guraso, familia eta norbanako gehiago elkartu orduan eta aberatsagoa izango baita ekimena.



**HILEROKO AZKEN
LARUNBATEAN EGINGO DA.
LEHENENGOA MARTXOAREN
28AN. HERRITAR GUZTIAK
DAUDE GONBIDATUTA**

ANTZERKIAREN LANKETA DIDAKTIKOA

Suizidioaren gaia landuko dute *Pankreas* antzezlanaren bidez



Aurten, bigarren urtez, Udaleko Hezikuntza sailak eta herriko ikastetxeek antzerkia modu didaktikoan lantzen dihardute. Horretarako oinarri '*Pankreas*', martxoaren 13an Santa Ana eskainiko den antzezlan erabiliko dute. Batxiler mailan suizidioaren gaia lantzeko erabiliko da antzezlan, horretarako propio landutako material didaktikoa erabiliko dutelarik. Ondoren ikasleek aukeran izango dute ordutegi librean eskainiko den antzerkira gerturatzeko, antzerki zaletasuna eta euskal kulturaren kontsumoa ere landuz bide batez.

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN UDABERRIKO KONTZERTUAK

José de Azpiazu musika eskolako ikasleek udaberriko kontzertu zikloa eskainiko dute, ikasurtean zehar landutakoa praktikan jarri



► **HAIZE ETA AKORDEOI TALDEAK**
Martxoak 14, Santa Ana aretoan, 19:00

► **TAILERREKO IKASLEEN EMANALDIA**
Martxoak 25, Santa Ana, 18:30

► **ABESBATZA ETA BESTE TALDE BATZUK**
Martxoak 26, Santa Ana, 18:30

UDAL LIBURUTEGIA - MARTXOA

'ITSASPEKO BIHOTZAK' Literatura Aretoa

MARTXOAK 2-13, KULTUR ETXEAN, 18:00-20:00

Emakumearen nazioarteko egunaren harira, Galtzagorri elkarteak prestatutako erakusketa da, genero berdintasuna haur literaturaren bidez lantzeko, Martxoaren 10ean, guraso eta helduei zuzendutako bisitaldi berezia egingo da. Hilaren 9a baino lehen eman behar da izena, liburutegian bertan, edo udal gizarte zerbitzuetan (943037700, Ainhoa).

IPUIN KONTAKETA (6-10 urtekontzat)

MARTXOAK 26, HAURREN LIBURUTEGIAN, 18:00

Ostegun kontalariak ekimenaren barruan, 6 eta 10 urte arteko haurrentzako ipuin kontakea saioa Izaskun Mujikaren eskutik. Gonbidapenak aurreko astean zehar banatuko dira liburutegian.



TERTULIXAN-IRAKURLE TALDEAK

Euskarazko irakurle taldean Edorta Jimenezen '*Stock 13*' liburu erotikoa aztertuko dute martxoaren 17an, 18:30etan. Gaztelarazko taldean berriz, Francois Shuiten '*La chica inclinada*' komikia izango dute hizpide hilaren 24an, 18:30etan, Antonio Altarribak gidatuta.



OTSAILEKO AGENDA

■ ANTZERKIA



martxoak 13 Udak Kultura sailaren eskutik 'Pankreas' (Tartean Teatroa) antzezlanak ikusteko aukera izango dugu. Patxo Telleriak idatzitako lana da, eta Patxorekin batera, Joseba Apaolaza eta Mikel Martinez ikusiko ditugu taula gainean. Eskarmentu handiko aktoreak hirurak ere.

Protagonistetak batek pankrea-transplantea behar du lehenbailehen, bere organoa oso hondatuta dagoelako. Zer egingo zenuke lagun baten bizia salbatzeko? Zer emango eta zer gordeko zenuke? Horixe da antzezlanaren abiapuntua. Eta bestelakoa badirudi ere, endreduzko komedia bat da. Gau zoro batean, ezusteko gertaerak etorriko dira bata bestearen ondoren, eta barre algarak nagusituko zazikio hasierako tonu ilunari. Beste berezitasun bat ere badu antzezlanak, eta zera da: bertsoz idatzitako obra da. Eginkizun honetan Andoni Egañaren laguntza izan dute. **Santa Ana, 22:30. Sarrera: 10€ (www.bibe.me)**

martxoak 8 KONTZERTUA PAKO TABERNAN **J.M.G. & THE MG's.**

Juanma Guereñu, Javier Rodríguez eta Pedro Kassengue-k osatzen dute talde honek blues eta rock estilok jorratzen ditu. Juanma Guereñu Hertzainak taldeko Garirekin eta Alex Caporuscio blues gitarrajolearekin jo izan du urte askotan. Orain bere taldearekin ikusi ahal izango dugu. **Igandea, 19:30.**



martxoak 15 KONTZERTUA GAZTELEKUAN **NAPOKA IRIA**

Miren Narbaiza eibartarrak (kitarra akustikoa eta ahotsa) eta Ander Mujika elgoibartarrak (kitarra elektrikoa) osatzen duten Napoka Iria taldeak joko du gaztelekuan hilaren 15ean. rock akustiko intimista egiten du aurten hamar urte beteko dituen talde honek. **Igandea, 19:00. Sarrera 5€.**



martxoak 22 KONTZERTUA PAKO TABERNAN **LA BALDOSA FLOTANTE**

2003an Bilboko Irola irrati libreko poesia-musika saio baten inguruan sortutako taldea da. Klean gitara jotetik bizi izan eta gero, Granada, Italia, Grezia, Toledo eta Indian bizi izandako, eta gaur egun Bilbon bizi den artista baten proiektua da hau. Gitarra akustikoz, Sitar-az eta soinu armonikoez osaturiko errepertorioa entzun ahal izango dugu. **Igandea, 19:30.**



ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lantzeria
- Umeen jantziak

Kale Berrin, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuen fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ARANTZAZUKO PARKETXEA (Aizkorri-Aratz Natur Parkea)

ERAKUSKETA

Gipuzkoako Zuhaitz Bereziak

MARTXOAK 16-29



Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren eskutik, lurraldeko zuhaitz bereziei buruzko etakusketa ikusi ahal izango dugu Arantzazuko Parketxean hilaren 16tik 29ra. Gipuzkoako baso-ondarea ezagutarazteko eta haren balioa agerian jartzeko asmoz, Foru Aldundiak argazki lehiaketa antolatu zuen iazko udazkenean, eta bertara aurkeztutako argazki onenekin osatu dute erakusketa. Neurria, adina, historia, edertasuna edo kokapenagatik nabarmentzen diren zuhaitzak dira. Euskal Herriko Natura Babesteko 1994ko Legearen arabera, 25 zuhaitz daude Euskal Herriko zuhaitz apartekoen katalogoan, eta horietatik 10 gipuzkoan daude. **SARRERA DOAN.**

TXORIEN KANTUAK

ezagutzeko txangoa

MARTXOAK 29

Udaberria badator, eta urtaro berriarekin batera handiagotu egiten da nabarmen txorien jarduna, estaltze eta habiak prestatzen hasteko momentua baita. Beraz, txoriak ezagutzeko sasoi egokia da. Horregatik, Arantzazuko Parketxeak jardunaldi ornitologikoa antolatu du hirugarren urtez jarraian, Mikel Olano gidari eta basozainaren gidaritzapean. Hiru ordu eta erdi inguruko ibilaldia egingo da parketxea eta Gomiztegi artean.



Prismatikooak eta erabilera pertsonalerako gida ornitologiko bat eramatea gomendatzen da. Helduek 5€ ordaindu behar dute; 6-12 urtekoek 3€.

GAZTETXEAN MARTXOAN

MARTXOAK 8

EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

Emakume langilearen nazioarteko egunaren harira, egun osoko egitaraua: elkarretaratzea (12:30), bazkaria (14:30)...

MARTXOAK 13

BERTSO AFARIA

Aitor Bizkarra, Txaber Ormazabal, Aratz Igarzabal eta Urko Arregi oñatiarrak girotutako afaria. Txartelak Ona, Arrano eta Gaztetxean salgai. Txotx egiteko aukera egongo da.

MARTXOAK 14 / KONTZERTUA

TANIA DE SOUSA + BLASTER M

'Zuloak' taldeko kantaria izateagatik ezagun egin zen Tania de Sousa zestoarraren kontzertua. Iazko udan grabatutako 'Tania Tank' diskoa dakar besapean. Berarekin batera, 'Blaster M' gernikarrak ariko dira.



MARTXOAK 13

PELIKULA EMANALDIA

'R.A.F. Facción del Ejército Rojo' (Uli Edel, 2008) filma. 70. hamarkadan Baader Meinhoof lider karismatikoen gidaritzapean alemaniar gizartea astindu zuen talde armatuaren historia.

MARTXOAK 15 / DOKUMENTALA

SUSANA ARREGI GOGOAN

Susana Arregi hil zutenetik 25 urte pasa direnean, gertakariak eta Susana nor zen gogoratzen duen dokumentala gaztetxean.



MARTXOAK 21

'KORRIKA' BAZKARIA ETA KONTZERTUA

100 lagunentzako bazkaria gaztetxean, ehiztarien okela eta herriko ardogle eta sagardogileen edariekin. Txartelak Ona, Arrano eta Gaztetxean salgai. Ondoren, OSSO (Eibar, Zarautz) eta BACKBONE (Gernika) taldeen kontzertua. Euskal musika eszenako zakur zaharrak diren Lekter (Kokein...) eta Sergek (Eraso!) osatzen dute 'Osso'. 'Backbone', zuzenekoan dena ematen duen taldea da, musika gogor eta astuna eginez.

MARTXOAK 22

PELIKULA EMANALDIA

'Las uvas de la ira' (John Ford, 1940) filma. John Steinbeck-en eleberrian oinarrituta, 30. hamarkadan Estatu Batuetan izan ziren aldaketa sozial eta ekonomikoek landa eremuko familiei nola eragin zien azaltzen du.

MARTXOAK 23

GAZTION KORRIKA KILOMETROA!

Korrika Oñatitik pasako da. Ondoren txokolatada gaztetxean.

MARTXOAK 28 / KONTZERTUA

DROP!+BULLETS OF MISERY+HIGHKICK

Hard core basatia egiten duten 'Drop!' (Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta), 'Bullets of Misery' (Bizkaia) eta Highkick' (Madril) taldeen kontzertua

MARTXOAK 29 /

BIDEO EMANALDIA 'ZOHARDIA'

Josu Muguruza, Madrilgo Alcalá hotolean erail zuten Herri Batasunako kidearen omenez Lander Iruinek eta Markel Andiak egindako film dokumentala.



BADATOR KORRIKA

Martxoaren 23an igaroko da Oñatitik goizeko 7ak aldera

Martxoaren 23an, astelehen goizaldera, igaroko da Korrika-19 Oñatitik. Goizeko 06:00etan iritsiko da lekukoa Udanako gainera, eta 07:00ak aldera igaroko du herrigunea, Arrasaterako bidean.

Gogoratu, bi urtekin behin egiten dela Korrika, AEK-k antolatuta, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertu, euskararen aldeko aldarrikapena egin, eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzeko helburuarekin.

Hemeretzigarren edizio hau Urepelen hasiko da hilaren 19an, eta Bilbon amaituko 29an, Euskal Herria zeharkatu ostean, 11 egunez, gelditu gabe, 2.000 kilometro baino gehiago eginez, euskararen alde, adin eta mota guztietako korrikalariekin, gau eta egun gelditu barik.

KORRIKA GIROTZEKO EGITARAUA

■ **MATERIAL SALMENTA.** Korrikako materiala salgai jarriko da martxoaren 7an eta 14an (10:00-13:00) azoka ondoan.

■ **HERRI APAINKETA.** Herriko eskoletako ikasleen artean panelak margotuko dituzte herria apaintzeko.

■ **KORRIKA LAGUNTZAILE.** Korrikari diruz lagundu nahi izanez gero, 'Korrika Laguntzaile' txartela ateratzeko aukera dago 12 euroren truke.

Euskal Herriko hainbat saltokitan beharpenak izateko aukera ematen du. Kultur etxean eska daiteke martxoaren 15era arte, edo www.korrika.eus atarian.

■ **ANTZERKIA.** Martxoaren 13an 'Pankreas' antzezlanaren taularatuko da Santa Ana aretoan, 22:30etan.

■ **KORRIKA BAZKARIA.** Martxoaren 21ean ehun lagunentzako bazkaria Antixena gaztetxean, herriko produktuekin. Txartelak salgai Ona, Arrano eta Gaztetxean (10€ / langabetu eta jubilatuak 8€). Bazkalondoan kontzertua egongo da.

■ **KORRIKA TXIKIA.** Martxoaren 23an, arratsaldeko 14:30etatik aurrera Korrika Txikia egingo da herriko ikastetxeen artean. Amaieran, txokolate beroa egongo da Pago Uso eta Olaiturri eklartearen eskutik, eta ondoren txorimaloen kalejira, Oñatzen eskutik, trikitilariak lagunduta.



MUNDUARI BIRA 80 ABESTITAN

Kontzertua eta musikala
Ganbara Txikiren eskutik

Ikasturteko bigarren hiruhileko kontzertua eskainiko du Ganbara Txiki abesbatzak **martxoaren 29an**, Izenburuak berak dioen moduan, munduko lurralde ezberdinetako musika eskainiko dute Ganbara Txiki osatzen duten talde guztiek.

Gainera, emanaldiaren baitan musikal txiki bat ere eskainiko dute, antzerkia eta musika uztartuz. Protagonistak, nola ez, Willy Fog eta Rigodon izango dira, eta Ganbara Txikiko kideek lagunduko diete apustua irabazten, alegia, munduari buelta ematea 80 abestitan.

ARRI
Industria Hornidurak
Burdindegia
Oñatitik Oñatiraren zerbitzura!
Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
suministrosarri@hotmail.com

NI moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

S distira
estetika zentrua
■ Manikura eta Pedikurak
■ Solarluma
■ Gorputzeko Tratamenduak
■ Aurpegiko Tratamenduak
■ Depilazioa
San Lorenzo 4. behealdea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Martxoak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta
24, eta apirilak 1.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Martxoak 6, 7, 8, 16, 17, 25 eta
26.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Martxoak 10, 11, 19, 20, 21, 20 eta
30, eta apirilak 7.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Martxoak 11, 12, 20, 21, 22, 30 eta
31, eta apirilak 2, 3, 4, 5 eta 6.

Guardiako taxilariak

MARTXOAK 2-8

ANA ORUETA
943 534082 / 650 059 999

MARTXOAK 9-15

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

MARTXOAK 16-22

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

MARTXOAK 23-29

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

MAR. 30-APIRILAK 5

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

OÑATIKO

TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutzte Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Merkatu Txikia

Geriatrako ohe elektrikoa salgai (90x100 zm.). Egoera oso onean. Pago egur kolorekoa, osagarri guztiekin. Interesatuak deitu: 609015042 / 943781041.

Etxebizitza alokatzen da San Lorentzo Auzoan. Bi logeladuna. Deitu: 666 21 73 48.

Garajea alokatzen da Olakua auzoan. Interesatuak deitu: 610686030

Etxebizitza salgai Kale Zaharra 25ean. Bi logela, komuna, egongela, sukaldea eta barruko patio bat. Guztiz jantzia. Igogailuarekin. 160.000 euro. 655722735

Etxebizitza salgai, Oñatiko erdigunean, 68m². Bi logela, komuna, egongela eta sukaldea.

Prezioa: 179.000 €. 659720664

Garajea alokatzen da Kurtze Bide kaleko 1 zenbakian. Interesatuak deitu, 652765090.

Garajea salgai edo alokairuan. Itxia (15m²). Arantzazuko Ama kalean. 652737631

Etxabola berriztua salgai Araotz auzoan (50m²). 652737631

Etxebizitza TASATUA salgai Ugarkalden. Sukaldea, egongela, komuna, 2 logela eta 110 m²-ko terraza. Garajea eta trasteroa ere badu. Telf.: 652761437 (Oihana)

Etxea alokagai Kanpantxo kalean. Hiru logelakoa, egoera onean. 480 € garaje eta guzti. 626383797.

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

MARTXOAK 13
APIRILAK 17
MAIATZAK 15
EKAINAK 12
ABUZTUAK 10
IRAILAK 11

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

OTSAILAK 24

Plastiko batzea ohiko bilketa puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
Gorritxitxi (Musika Eskola ondoan)

Urrutxuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbatak 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino lehen, 943 71 19 38 zenbakira deitu behar da. Traste zaharrak 20:00-22:00 artean atera behar dira.

Antxiñako fotografixak



Joxe Arriaran eta Zubillagako pelotalekua

Orain dala hilla bate bat fan xaku Mondraguek emun dauen pelotaririk haundixenetako bat: **Joxe Arriaran Aranburu, Arriaran II.a**. Eta makiñatxo bat pelotari on egon da Arrasaten, bai horixe. Kirol ibilbide luzia eta aberatsa euki eben Joxek: banakako txapeldun izan zan 1955ian nahiz 1956xan, eta biñakakua 1961ian Pako anaiarekin batera. Pelotari saiatua, fiña eta dotoria izan zan beti, frontoi-etako benetako zalduna, hogeita bost urtian profesionaletan jardunaz.

Oñatin be sarritan jokatu eben Arriaran II.ak. Plazako frontoi zaharrian, Korpustietan edota San Migeletan antolaketan ziran partidu entzutetsuetan. **Arantzazuko kolejixoko pelotaleku barrixak** inaugurau ziranian be, 1955eko urrixaren Sian, han izan zan Joxe. Bi partidu jokatu ziran: lehenenguan **Txikuri** eta **Mondragones II.a**, **García Ariño I.a** eta **Etxeberria II.a**ren kontra; bigarrenian, barriz, **Arrasateko ezkerre** (**Zurdo** famaua) eta **Etxabe X.a Arriaran anaien** aurka. Orduko argazkixak Goiko Bentako sarreran ikusi zeikiei.

Baiña guk ondo goguan dakoguna **Zubillagako pelotalekuaren inauguraziño egunekua** da. San Pedro bixamonian, 1960ko bagillaren 30ian izan zan, eta lau mondraguatarrek jardun euen partidu nagusixan: **Arriaran II.ak** eta **Juan Mari Azkaratek** alde batetik, eta **Jaime Bengoak** eta **Pedro Ugartek** bestetik. Orduantxe jarri zan Joxe Arriaranen erretratua ezkerreko paretiaren atzekoaldian, **Simon Arrieta** pintore bergararrak egindako marrazkixa. Argazki zaharrenian datoz lau pelotarixok: ezkerretik eskumara, Ugarte, Bengoa, Arriaran eta Azkarate. Pedro eta Juan Mari oñatiarrekin eta Oñatira ezkondu ziran, gaiñera.

Handik urte askotara **Zubillagako pelotaleku hori estali** egin zan. Eta orduan be omenalditxua egin xakon Arriaran II.ari. Hori 1999ko zemendixaren 28xan izan zan. Beste fotografixan agiri da orduko irudixa: **Joxe Arriaran erdixan** dago, bere eskuman **Anjel Iturbe** zubillagarra, garai haretako Oñatiko alkatia dakola, eta ezkerrian **Iñaxio Iñurritegi** Zubillagako auzo-alkatia. Arrietaren marrazkixa hondatuta eguelako, Joxeren argazki barri bat ifiñi zan ezkerreko horman.

J. E.

Argazkixak Aurita Perosterenak eta Iñigo Arregik eskuratu doskue. Argibidiak, berriz, Jabier Ugarte, Joxe Ramon Azkoitia, Izar Salaberri eta Nerea Artolari zor dostegu. Milla esker danoiri!

Oharra: Orain hurrengo fotografixa zaharreko beste hiru izen jakin dittugu Nikolas Ugarteren bittartez: Joxe Mari Ugarte *Kirru* ezkerretan gabanarekin dagueña, Karmelo Astigarraga bizikleta gaiñian, eta Santos Irizar estankokua eskumako ertzian. Eskerrik asko informaziñuarengatik.



Arkauz zure etxea da.

ARKAUZ
GRUPO

ARETXABALETA 1950 - 2015 ARRASATE

65 urte



ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

Maiztezen 1 Plaza,
2. zenbakian

3 lorgeletako
etxebizitza zabalak

Informazioa eta Salmenta:
Larrain S.L.
Tel.: 943 21 33 88
www.moyua.com

Grupo **MOYUA** **Larrain**



**grupo
amuebladora
mondragonesa**



ZERKAOSTETA 3
TEL.: 943 71 10 11
ARRASATE



ZIGARROLA 1
TEL.: 943 71 10 12
ARRASATE



centro hogar MUEBLES



**Sofa
leku**

ZIGARROLA 1
TEL.: 943 79 15 03
ARRASATE



**koltxoi
leku**

MEDEURREN 2
TEL.: 943 88 65 88
BEASAIN

**koltxoi
leku**



**GUSTU GUZTIETARAKO BARNE APAINKETAK!
GAINERA, ZURE NEURRIRAKO ARRETA ESKAINTZEN DUGU!**